- \* Bestelakoetan: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz justifikatu eta gero.

b) Otordu eta ostatu gastuak: egindako gastuaren zenbatekoa, ordainagiriz justifikatu eta gero.

Funtzionarioek eta langile kontratatuek egindako lanen kalte-ordainei buruz Eusko Jaurlaritzak abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuan jasotako kalte-ordainak hartzeko eskubidea izango dute. Era berean, aplikatu beharrekoak izango dira aipatutako Dekretuko xedapen gehigarriak eta kalte-ordainen zenbatekoak berrikusteko egiten diren dekretuak.

Nolanahi ere, bai hautetsiek bai gainerako udal langileek egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta non joan diren, irteera eta itzuleraren ordua, eta egindako gestioen berri jasoz. Agiri horretan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalte-ordaina.

## 11. artikulua.- Dirulaguntzak

Udalak dirulaguntzak eman ahalko dizkie, gastuen egoerako 4., eta 7.kapituluetako kredituen kontura, erakunde publiko naiz pribatuei, bai eta partikularrei ere, baldin eta onura publikoko, gizarte intereseko edo xede publikoa sustatzeko jarduerak egiten badituzte.

Udalak ematen dituen dirulaguntzek honako lege arauetan xedatutakoa bete beharko dute: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 18koa, dirulaguntzena, 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntza lege orokorraren araudia onartzeko, Zumaiako udalaren dirulaguntzen ordenantza, eta kasuan kasuko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak.

Edozein jarduera antolatzeko Udalak emandako dirulaguntzek bat etorri beharko dute Aurrekontuen dokumentu honetan ondorengo puntuan eranstean diren oinarriekin edo Udal Batzarrak, informazio-batzordeen proposamenez, onartutako oinarriekin.

Udalaren aurrekontuaren kargura inolako dirulaguntzarik jasotzen duenak, aldeztu aurretik:

- 1.- Udalarekin bere zerga betebeharrak eginak dituela egiaztatzea beharko du. Horretarako, Kontu-hartzaileak ziurtagiri bat sinatu beharko du eta bertan jaso borondatezko epealdia bukatu ondoren zergadunak ez duela inolako zorrik ordaindu gabe.
- 2.- Izango dituzten sarrerak ez dutela gainditzen jardueraren kostua.

Gainera, dirulaguntzak jasotzeko baldintza batzuk bete behar badira, "O" fasean kontabilizatu beharko dira, eta ez da dirurik jasoko baldintza horiek guztiak bete arte.

Gastuaren kudeaketaz arduratzen den zerbitzuak izapidetuko ditu dirulaguntzak emateko, itzultzeko, deuseztatzeko edota atzera egiteko espedienteak. Zerbitzu horrek, baita ere, ziurtagiriak eskatu, eta egiaztatzea beharko ditu, dirulaguntza ematean eskatutako betekizunak bete gabe utzi ez direla begiratu, eta justifikazioa onartzea proposatu.

## 12. artikulua.- Prestakuntzako edo hobekuntzako ikastaroetara joatea

Ikastaroetan parte hartzeko honako arau hauek bete beharko dira:

- a) Baimenaren proposamena alorreko arduradunak sinatuko du, udalburuaren oniritziarekin, besteak beste honako datu hauek jasoz:
  - \* Ikastarora doanaren datuak. izen-abizenak, lanpostua, etab.
  - \* Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
  - \* Orduetara.
  - \* Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gorabeherako zenbatekoa.
- b) Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetara joateagatik, ondorengo kalte-ordainak jaso daitezke:

Bidaia gastuak: benetan gastatu eta justifikatutako kopurua ordainduko da, eta ibilgailu partikularra erabiltzen denean 0,29 € kilometroko. Era berean, ordaindu egingo dira aparkalekuko eta autobideko dirusaritan gastatu eta justifikatutako gastuak.

Oro har, joan-etorriak garraio publikoetan egingo dira; hala ere, kasu bakoitzaren egoera zehatzak horrela eskatuta, ibilgailu partikularra edo bestelako garraiobide bat erabiltzea baimen daiteke.

Otordu gastuak: egunean bazkaltzen edo afaltzen gastatutako kopurua da, bakoitza bere aldetik kontuan hartuta. Benetan gastatu eta justifikatutako diru kopurua ordainduko da otordu gastuengatik; diru kopuru hori, gehienez, mantenu gastuetarako jarritako egun bakoitzeko zenbatekoaren % 50ekoa izango da.

Ostatu gastuak: ostatu gastutzat hartuko dira gela eta gosariari dagozkionak. Jaso beharreko kopurua benetan gastatu eta horrela justifikatutakoa izango da.

Goian aipatutako gastuez gain, ordaintzekoak izango dira dagokion ikastaroan izena eman eta bertara joateak sortzen dituen gastuak ere: Prestakuntza ikastaroetara joateko baimena udalburuak emango du eta ordaingarriak diren gastuak zehaztuko ditu.

- c) Udalburuak ebatziko du baimen proposamenari buruz, aurrez Kontu-hartzaileak aurrekontu krediturik badagoen ala ez egindako txostena ikusita.
- d) Ebazpena ikusita, diruzainak "justifikatu beharreko ordainketen" izaera izango duen diru-hornidura egingo du.

### 13. artikulua.- Udal Erregistro Orokorraren erregistro laguntzailea

Hornitzaileei 30 egunetan ordaindu behar zaien betebeharrari aurre egiteko, 1.000 eurotik (BEZ barne) beherako fakturak, fisikoki Udalean aurkezten badira, eta lehen aipatutako epea kalkulatzeko, "Sareko" aplikazioan faktura sartzen denaren data izango da kontuan. Horrela Sareko aplikazioa Udalaren Erregistro Orokorraren erregistro laguntzailea izango da.

### 14. artikulua.- Kode organikoa.

Udaleko departamentuak berrantolatzen diren heinean, kontu-hartzaileak aurrekontuko partiden kode organikoa aldatu ahal izango du.

## II.TITULUA: BARNE KONTROLA:

### 15. artikulua.- Barne kontrolerako ereduak:

2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, zeinak toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bategina onartzen duten (TOALTB), 213. artikuluan xedatutakoaren arabera, baita 424/2017 Errege Dekretuak, apirilaren 28koa, zeinak tokiko sektore publikoko erakundeen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren IV. Tituluak eta 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koa, zeinak Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen xedatutakoaren arabera, Zumaiako Udalaren ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola kontu-hartzailetza organoak egin behar duela, kontu-hartzailetzako eginkizuna eta finantza-kontrola betez. Bietan txertatuko da efikazia- eta efizientzia-kontrola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 68. artikuluan jasotakoa.

Kontu-hartzailetzak, halaber, tokiko sektore publikoa osatzen duten subjektuek emandako dirulaguntzen eta laguntza horien onuradunei, eta erakunde laguntzaileei aplikatu beharreko araudian ezarritako kontrola egin beharko du.

Kontu-hartzailetza da edozein fiskalizazio-lanen arduraduna eta tokiko sektore publikoaren jardueraren barne kontrolaren esparruan jarduteko eskumenaren titularra.

Hurrengo artikuluetan aurreikusi ez den orori dagokionez, goian aipatutako araudia aplikatuko da.

#### **16. artikulua.- Eginkizun kontu-hartzailetzaren faseak:**

Kontu-hartzailetzaren eginkizunak ondorengo fase hauek izango ditu:

- a) Eduki ekonomikoko eskubideak aitortzen dituzten, gastuak baimentzen edo onartzen dituzten, gastuak xedatzen edo konprometitzen dituzten eta funtsen zein baloreen mugimenduak erabakitzen dituzten egintzak aldeztatu aurretik fiskalizatzea.
- b) Obligazioak aitortu aurretik kontu-hartzea eta inbertsioa materialki egiaztatzea.
- c) Ordainketa-aginduaren kontu-hartze formala egitea.

#### **17. artikulua.- Diru-sarreretan kontu-hartzailetzako funtzioa:**

Udalaren eskubideen eta diru-sarreraren aldeztapen aurreko fiskalizazioaren ordez, kontabilitatean arazo-hartzeari dagokion kontrola eta finantza kontrolaren bidezko ondorengo kontrola ezartzen dira.

#### **18. artikulua.- Gastuetan kontu-hartzailetzako funtzioa:**

Udalaren aldeztapen aurreko fiskalizazioa eta kontu-hartzailetzak oinarritzeko betekizunen aldeztapen aurreko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidearen bitartez gauzatu behar dira.

Aldeztapen aurreko fiskalizazioak eta kontu-hartze mugatuak oinarritzeko alderdi edo betekizun hauek egiaztatuko ditu:

- Aurrekontu-kreditua egotea eta proposatutakoa egokia izatea, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 13.2 a) artikuluan arabera onartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaera kontuan hartuta.

- Betebeharrak edo gastuak organo eskudunak sortzea, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 13.2 b) artikuluan xedatutako baldintzetan.

- Edozein prozeduratan irregulartasun larririk balego, egintzaren erabateko deuseztasuna eragin dezakeenak, hain zuzen ere gastu betebeharrak dakartzatenak edo udal-ogasunari edo hirugarren bati kalte ekonomikoak eragin diezazkioketenak.

#### **19. artikulua.- Gastuen aldeztapen aurreko fiskalizazioaren mende ez daudenak:**

Honako gastu hauek ez dira aldeztapen aurreko fiskalizazioaren mende egongo:

- a) Material inbentaria ezinen gastuak.
- b) Aldizkako gastuak eta segidako tratuko gainerako gastuak, egintzaren edo kontratuaren edo haren aldaketan hasierako aldiari dagokion gastua fiskalizatu ondoren.

Aurreko gastu horiek finantza-kontrolaren xede izango dira, etengabeko kontroleko modalitatean, eta modu objektibo, sistematiko eta ausazkoan gauzatuko dira lagin adierazgarrien gainean, planifikatzen diren finantza-kontrolako jarduketan esparruan.

## **20. artikulua.- Fiskalizazioa eta ondorengo kontu hartze osoa:**

Oinarrizko betekizunen aldean aurreko fiskalizazioaren eta kontu-hartzailera mugatuaren mende dauden betebeharrak edo gastuek ondorengo beste kontu-hartzailera bat izango dute, zeina aipatutako fiskalizazioa eragin zuten egintzen, dokumentuen edo espedienteen lagin adierazgarri baten gainean gauzatu baita, laginketa- edo auditoretza-teknikak aplikatuz, kasu bakoitzean aplikatu beharreko xedapenekin bat datozeela egiaztatze eta kredituen kudeaketa legea zein heineraino betetzen den zehazteko.

Ondorengo erabateko kontrol hori etengabeko finantza-kontrolaren barruan sartzen da, eta, hala badagokio, kontu-hartzailera organoak egindako Finantza Kontroleko Urteko Planean (FKUP) gauzatu da.

## **21. artikulua.- Obligazioak aitortzeko aurreiazko kontu-hartzea eta inbertsioaren egiaztapen materiala egitekoa:**

Udalaren gastuen likidazioak edo obligazioen aitortpenak aldean aurreko kontu-hartzailera mende daude, haien jatorria lege batean zein baliozkotasunez egindako negozio juridikoetan izanda ere.

Kontu-hartze hori oinarrizko betekizunen araubidearen arabera egingo da, arau honen 19.artikuluaren xedatutako terminoetan.

Inbertsioaren egiaztapen materialen kontu-hartzea egiteko, Gipuzkoak tokiko sektore publikoko erakundearen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 20. Artikuluaren xedatutakoaren arabera jardungo da.

## **22. artikulua.- Ordainketaren kontu-hartze formala, eta materiala. Kutxa finkoko aurrerakinak, eta justifikatu beharreko ordainketak:**

Kontu-hartzailera funtzioaren barruan sartzen dira, halaber, ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala, justifikatu beharreko ordainketa aginduen eta kutxa finkoko aurrerakinaren aldean aurreko fiskalizazioa, eta justifikatu beharreko ordainketen kutxa finkoko aurrerakinaren justifikazio-kontuen kontu-hartzea.

Kontu-hartze hori oinarrizko betekizunen araubidearen arabera egingo da.

Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak justifikatzeko kontuetan adierazitako alderdiak egiaztatze, partida bakoitza justifikatzen duten kontuak eta dokumentuak aztertuko dira.

## **23. artikulua.- Gastuak aldean aurretik fiskalizatu, eta kontu hartzeko prozedura:**

Organo kontu-hartzailera, dagokion ebazpena eman aurretik, eduki ekonomikoko betebeharrak edo funts zein baloreen mugimenduak sor ditzakeen egintza, dokumentu edo espediente oro aztertuko du, (aldean aurreko fiskalizazioan) aplikatu daitezkeen xedapenekin bat datorrela ziurtatzeko halaber, dagokion ebazpena eman aurretik, egiaztatuko du

betebeharrak legearekin edo agintaritza eskudunek sinatutako negozio juridikoekin bat datozela, eta pertsona edo erakunde hartzekodunak, hala badagokio, (aurretiazko kontu-hartzea) korrelatiboa bete edo bermatu duela.

Kontu-hartzailetza organoak, kontu-hartzailetzako funtzioaren xede diren alderdiak egiaztatu ondoren, uste badu fiskalizatu edo kontu hartze beharreko espedientea legearen arabera dela, bere adostasuna adieraziko du sinatutako eginbide baten bidez, eta ez du hura arazoitu beharko.

Kontu-hartzailetzako organo ez badago ados aztertutako egintzen, dokumentuen edo espedienteen edukiarekin edo formarekin, idatziz adierazi beharko ditu eragozpenak.

Eragozpenak adierazten badira, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 12., 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

Kontrolaren ondorioak honako hauek izango dira:

**Erreparo etengarria:** arau orokorra da oinarrizko betekizunen bat bete ez eta gastu- edo ordainketa betebeharrak eragiten dituzten egintzetarako. Eragozpen hori kentzea alkateari dagokio, edo Udalbatzari. Azken horren ardura izango da eragozpena kentzea, baldin eta kreditu-eskasia edo desegokitasuna bada eragozpenaren oinarria, edo bestela bere eskumeneko betebeharrak edo gastuei buruzkoa bada.

**Erreparo ez-etengarria:** desadostasuna eskubideei eta diru-sarrerei buruzkoa denean. Era berean betebeharrak edo gastuetan, funtsezkoak ez diren akats konpongarriak direnean, eta, akats horiek izanez gero, eragozpenak ez duenean izapidetzea eteten, betebeharrak aitortzeko fasea iristen denean, funtsezkoak ez diren akats horiek zuzendu ez badira betebeharrak eten egingo da.

**Oharrak:** Oharren bidezko fiskalizazioak ez du etete-ondoriorik izango, eta ez da desadostasun prozedurarik abian jarriko.

#### **24. artikulua.- Kontu-hartzailetzako eginkizuna ez betetzea:**

Kontu-hartzailetza eginkizuna nahitaezkoa bada eta egin ez bada, ezin izango da obligazioa aitortu, ez eta ordainketa izapidetu ere, eta ezin izango da jarduketa horien kontu-hartzerik egin, hain zuzen ere ez-egite hori ezagutu eta ebatzi arte.

Organo kontu-hartzaileak, espediente batez arduratzean atzematen badu kontu-hartzailetzako eginkizuna ez dela bete, hala adieraziko dio espedienteari hasiera eman dion agintaritzari, eta, aldi berean proposamenari buruzko iritzia emango du, txosten hori jarduketei gehituta. prozedurak aurrerap jarraitzen duen ala ez, eta, hala badagokio, bidezkoak diren gainerako jarduketak egin ditzan.

Kontu-hartzailetzako eginkizuna betetzen ez bada, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 28. artikuluaaren arabera jardungo da.

#### **25. artikulua.-Finantza kontrola:**

Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 29. artikuluan aipatzen den finantza kontrolaren xedea de egiaztatze udal-erakunde honen sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua bat datorrela legezotasun, ekonomia,efizientzia, eta eraginkortasun printzipioekin, eta

egiaztatze kredituak behar bezala lortu eta erabiltzen direla, bai eta haiekin finantzatutako eragiketak benetakoak eta legearen araberrakok direla ere.

Udalaren, gaineko etengabeko kontrol-modalitatearen arabera egingo da finantza kontrola; betiere urteko finantza-kontrolaren plangintzan ezarritakoaren arabera.

Kontu-hartzailetzako organoak proposatuta, aipatutako auditoretza publikoak egiteko, enpresa pribatuak kontratatu ahalko dira, eta horiek organo horrek emandako jarraibideak bete beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe kontu-hartzailetzako organoak bere egitea auditoretzen emaitzak, hala dagokionean.

Kontu-hartzailetzak, halaber, finantza-kontrola egingo die udal-sektore publikoa osatzen duten subjektuek emandako dirulaguntzen eta laguntzen onuradun diren erakunde laguntzaileei, baldin eta haiek aurrekontu orokorren kontura finantzatzen badira, hain zuzen ere diru-laguntzei buruzkoa Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen azaroaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren III.Tituluan ezarritakoaren arabera egingo da finantza kontrola.

#### **26. artikulua.-Finantza kontrolerako plangintza:**

Urtero, kontu-hartzailetza sailak Finantza Kontroleko Urteko Plana egingo du. Plan horretan, ekitaldian zehar egin beharreko etengabeko kontroleko eta auditoretza publikoko jarduketak jasoko dira, eta; informazioa emate aldera Udalbatzara bidaliko da, eta Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuaren 31.artikuluari ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

#### **27. artikulua.-Finantza kontrolaren emaitzak:**

Etengabeko kontrol-jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza txosten idatzietan dokumentatuko da, dagozkion jarduketan emaitzekin eta, hala badagokio, kontrolatu beharreko jardueri buruzko gomendiotan.

Era berean, berehala zuzendu beharreko akatsak adieraziko dira eta hurrengo kontrol-jardueretan horiek behar bezala egin direla egiaztatu beharko da.

Kontrolatutako jarduera zuzenean kudeatzen organo kontu-hartzailetzak eta toki-erakundeko lehendakaritzak igorriko dituzte finantza-kontrolerako behin betiko txostenak.

Tokiko sektore publikoko erakundeen kontabilitate informazioa, eta urteko kontuen auditoretza-txostenak udaleko egoitza elektronikoan argitaratu beharko dira.

#### **28. artikulua.-Laburpen txostena:**

Urtero, kontu-hartzailetzak barne kontroleko txosten bat igorriko dio Udalbatzari, alkatearen bitartez. Kontu orokorren onespenerekin batera bidaliko da txosten hau.

#### **29. artikulua.-Ekintza plana:**

Aurreko artikuluan aipatutako barne-kontrolerako txostena igorri ondoren, toki-erakundeko lehendakaritzak ekintza-plan bat formalizatuko du, gehienez ere 3 hilabeteko epean. Ekintza-plan horretan, honako hauek jasoko dira: hartutako zuzenketa-neurriak, neurri horiek gauzatzeko ardura duen teknikaria, hori guztia Gipuzkoako tokiko sektore publikoko

erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 38. artikuluan xedatutako baldintzetan.

Zumaian,





IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Bueno, orain goaz aurrekontuaren proiektura, 2025-eko proiektua. Lehen bozeramaileei ere komentatu diet, lehendabiziko eingo egingo duguna da aurkeztu 2025-eko proposamena. Gero aurkeztuko dira erantzun nahi baldin bada momentuan edo ondoren aurkeztuko dia, bueno, ba sartu diren emendakinak EAJ-renak eta bai PSE-renak. Egingo duguna da, nere proposamena da, entzun, emendakin guztiak edo azalpenak eman eta gero dana batera bozkatu. Ikusten baldin baduzue banan-banan bozkatu behar dela guk arazorik ez daukagu, baino bueno, proposamena da dena batera bozkatzea. Eta behin bozkatu ondoren edo gure azalpenak eman ondoren, ya entzungo genituzke ba aurrekontuaren proposamen osoaren erantzunak eta hor sortzen baldin bada eztabaida eta gero ya bozkatzera pasako giñake. Besterik ez baldin badago, ba Unairi ematen diot hitza.

UNAI LARRAÑAGA URANGA:

1.- Udal Gobernuak osoko bilkurara 19,8M euroko aurrekontu proposamen dakar 2025erako. Arau Fiskalen ber-ezartzeak markatuta dakartzan aurrekontuak dira. Lehen aldiz baita ere Aurrekontuek Txertatuta dakarte Genero Ikuspegiko txostena non Berdintasun Ordenantzek markaturiko Inbertsio Zuzen gutxiengoak betetzen dugun. Pauso txiki baina garrantzitsua da guretzat genero ikuspegi txosten hau txertatzea.

1.- Aurrekontuen proposamena orain dela hilabete aurkeztu zenez, eta Aurrekontuaren proiektuari dagokion txosten teknikoak zenbaki zehatzak jasotzen dituenaz, aurkezpen honetan ditugun Kapituluen zenbaki orokorrak eta hauetan egon litezkeen azalpenak ematera mugatuko naiz.



SARRERAK				
KAP	IZENA	2025	2024	% 25/24
1	Zuzeneko zergak	3.704.547,08 18,67%	3.479.077,95 14,01%	6,48%
2	Zeharkako zergak	200.000,00 1,01%	412.902,01 1,66%	-51,56%
3	Tasak eta bestelako sarrerak	3.752.689,44 18,91%	3.427.808,85 13,80%	9,48%
4	transferentzia arruntak	9.940.220,47 50,10%	10.057.152,99 40,49%	-1,16%
5	Ondare sarrerak	132.617,92 0,67%	124.943,98 0,50%	6,14%
	<b>Sarrera arruntak</b>	<b>17.730.074,91</b> <b>89,36%</b>	<b>17.501.885,78</b> <b>70,46%</b>	<b>1,30%</b>
6	Inbertsio errealeen besterenganatzea	1.200.000,00 6,05%	0 0,00%	
7	Kapital transferentziak	504.093,54 2,54%	438.577,54 1,77%	14,94%
	<b>Kapital sarrerak</b>	<b>1.704.093,54</b> <b>8,59%</b>	<b>438.577,54</b> <b>1,77%</b>	<b>288,55%</b>
8	Finantza aktiboak	406.310,64 2,05%	2.704,56 0,01%	14923,17%
9	Finantza pasiboak	0,00 0,00%	6.895.516,50 0,00%	-100,00%
	<b>Finantza sarrerak</b>	<b>406.310,64</b> <b>2,05%</b>	<b>6.898.221,06</b> <b>27,77%</b>	<b>-94,11%</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>19.840.479,09</b>	<b>24.838.684,38</b>	<b>-20,12%</b>

1.1.-Sarreraren kalkulua (I., II. eta III. Kapituluak) 2025ko ordenantza fiskaletan oinarritutakoak dira. Beti ere zuhurtzia printzipioa erabili dugu sarreraren atalean. Azpimarratzekoak 1. eta 3. Kapituluaren igoerak %6,48 eta %9,48 urrenez urren, hau berri oso ona da ohiko sarrerak indartzen ditugulako.

1.2.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kalkulua (II. Kapituluak), aurreikusten diren eraikuntzen arabera egin da. Aurreko urtean izan ziren ezohiko sarreretatik urteroko normaltasun batera itzultzea aurreikusten da.



1.3.- Udal Finantzaketarako Foru Funtzari Dagokionez (FOFIM) azalpen gehiaxeago behar du aurtengoan. 2025an Zumaiari tokatuko ziztaion Zenbatekoa 9.073.000€ da. Baina dakizuenek Mutualisten sententzian Gipuzkoako Aldundiari 200M€ itzultzea tokatuko zaio.

Hori horrela eta Aldundiaren prebisio eta probisio falta nabarmenagatik Zumaiari 2024rako aurreikusita zegoen kopurutik ia 300.000 euro itzultzea tokatuko litzaioke. Behin betiko kopurua 2025eko otsailean jakingo dugu eta 2025erako aurreikusita dagoen kopuruaren lehen ordainketari deskontatuko diote. Nahiz eta kopuru zehatza ez jakin otsailersarte, zuhurtziaz, 2025eko kopuruari, itzultzea aurreikusten den kopuru osoa murriztu zaio. Aldundiaren itzulketa Udalerriek ordainduko dugu beraz. Guzti hau horrela izanda aurretik esan dudana 9.073.000€ izan beharrean 8.768.600€ izango dela aurreikusi dugu.

2025ko Sarrera Arruntak: 17.730.074,91€ 2024an baino %1.30 gehiago aurreikusten da esandako jeitsierak izanda ere, eta garrantzitsuena igo direnak ohiko sarrerak izan dira Udalaren aurrekontuak sendotuz.

1.4.-Kapitaleko dirulaguntzak eta Ezohiko diru sarrera aipagarrienak:

- 6. Kapitulan: 1.200.000€ Salbideko lur sailaren salmenta aurreikuspena
- 7. Kapitula: Debegeak egiten digun ekarpoena Mollaberri birgaitzeko 494.000€
- 8.Kapitula :400.000€ Konbentuko Lorategia egiteko dirulaguntza.

1.5.-9 kapitulan (Finantza Pasiboak) 2025ean ez da aurreikusten inolako mailegurik eskatzea

Zorpetzearekin jarraituta esan Udalaren zorpetze maila Sarrera arruntekiko % 4.08 besterik ez dela.

Momentu honetan, , IDAE erakunderekin ekitaldi amaieran, 191.416.77 euroko zorra izatea aurreikusten da.

Zorra mankomunitatearekin, Urtetako zaborteziaren kudeaketa: 531.513,41€

Garrantzitsua da zorpetze ahalmen hau ez galtzea, palanka indartsua izan daitekeelako herriak izan ditzazkeen proiektu haundiei aurre egiteko etorkizunean. Gai izaten ari gara Inbertsio Ziklo intentsibo hau aurrera eramateko Udalaren ahalmen propioa eta dirulaguntzen gestio bikaina uztartuta.



GASTUAK				
KAP	IZENA	2025	2024	% 25/24
1	Pertsonal gastuak	6.049.458,16 30,49%	5.786.477,41 23,30%	4,54%
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	9.068.360,30 45,71%	9.156.949,60 36,87%	-0,97%
3	Interesak	3.700,00 0,02%	3.700,00 0,01%	0,00%
4	Transferentzi arruntak	1.668.307,68 8,41%	1.770.788,69 7,13%	-5,79%
5	Kreditu globala	50.000,00 0,25%	160.000,00 0,64%	-68,75%
	<b>Gastu arruntak</b>	<b>16.839.826,14</b> <b>84,88%</b>	<b>16.877.915,70</b> <b>67,95%</b>	<b>-0,23%</b>
6	Inbertsioak	2.939.628,67 14,82%	7.671.462,99 30,89%	-61,68%
7	Kapital transferentziak	0,00 0,00%	228.281,42 0,92%	-100,00%
	<b>Kapital gastuak</b>	<b>2.939.628,67</b> <b>14,82%</b>	<b>7.899.744,41</b> <b>31,80%</b>	<b>-62,79%</b>
8	Finantza aktiboak	5.000,00 0,03%	5.000,00 0,02%	0,00%
9	Finantza pasiboak	56.024,28 0,28%	56.024,28 0,23%	0,00%
	<b>Finantza gastuak</b>	<b>61.024,28</b> <b>0,31%</b>	<b>61.024,28</b> <b>0,25%</b>	<b>0,00%</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>19.840.479,09</b>	<b>24.838.684,39</b>	<b>-20,12%</b>

**Gastu Arrunten atalari begiratu:**

- 1. Kapitulu:** Pertsonalaren gastuak hazkunde natural bat du KPI igoerak kontuan izanda 4.54ko igoera
- 2 kapitulu** daude aldaketa haundienak urtero bezala:

2024 eta 25 haseran Herriko 4 kontratu haundienetakoak lizitatu ditugu eta lizitatuko ditugu, horrek kapitulu honeta ia 400.000€ko igoera suposatzen du:



- Etxez Etxekoa: 500.000€tik 600.000€ra pasatzen da aurrekontua. Zergaitia batik bat sinatu den konbenio kolektiboa izan da eta udal bezala Langileen lan baldintza duinak bultzatuko ditugu beti. Zerbitzuak ere ordu igoera izango du Udalak duen zerbitzu berezietakoa delako. Gure helduen zaintza zerbitzua datozen urteetan izango dugun erronka haundiena izango da
- Kale Garbiketa espero dugu behin betiko 2025ean martxan jartzea 702.000€
- Kiroldegiko kontratu berria, iada martxan dagoena, 830.000€
- Sorosleak ere Lan Konbenio berria sinatu dute aurten eta honek igoera nabarmena ekariko digu 360.000€ arte gure teknikoen aurreikuspenen arabera. Honek ere azalpen bat behar du, Batzar Nagusiek gehiengoz iada 2 aldiz eskatu diote Aldundiari bere gain hartzeko zerbitzu honen kostea, zuzenean ez bada zeharka, udalei baliabideak emanaz baina momentuz bi aldiz muzin egin dio Aldundiak Batzar nagusien eskariei. 2025 eko Aurrekontuak onartu gabe daudenez eta kanal ofizialetatik ez daukagunez inolako berririk, zuhurtzia printzipioa erabiliz datorren urteko aurrekontuetan sartu beharra izan dugu.
- Eskuhartze psikosozialean geneuzkan 4-5 kontratu ezberdinak batean elkartuko ditugu, honek alde batetik efizientzia haundiagoa ekarriko digu eta era berean zerbitzuan sakontzea eta bere kalitatea hobetzea.

Guzti honek Zerbitzu bakoitza banan-banan aztertzeraz eraman gaitu , eta aukera eman digu eraginkortasuna eta gastuen kontrola areagotzeko. Zerbitzu bakoitzaren beharrak eta gastuak ebaluatu dira, eta arlo bakoitzean gastuak nola optimizatu daitezkeen aztertu dugu. Doikuntza lan honi esker eta naiz eta igoera esanguratsuak izan partida batzuetan 2.Kapitalaren zenbateko orokorra 2024rekin alderatuz %1 jeistea ekarri digu ia 90.000€ kopurua 9.068.360€ tan utziaz.

3- Gastu orokorren atala itxi aurretik, aurreko Guzti hau esanda azpimarratu 884.000€ Aurrezki garbia aurreikusten dugula (sarrera orokorra – gastu orokorrak), aurreko urtekoa baino 156.000€ gehiago %21 beraz. Garrantzi berezia hobekuntza hau Ohiko sarreretan oinarritua izan dela, honi gastu arruntetan izandako lanketa batuta aurrekontu sendoago batzuk ditugula argia da. Hurrengo urtetarako oinarriak indartuta atera dira beraz egoera ekonomiko konplikatua batean.

## 6.- Inbertsioak



Azken urte hauetan bezalatsu udalak inbertsio fase garrantzitsu batean murgildurik jarraitzen du, hainbat urteko eraberritzearen ondoren Konbentua bezalako eraikin garrantzitsu bat irekiko dugu 2025ean, horren ekipamentuak garrantzi handia izango du beraz aurrekontuan, eta herriko eraikin garrantzitsuekin jarraituz Mollaberriko zaharberritzearekin hasiko gara, 2025eko inbertsio garrantzitsuenak honoko hauek dira bakoitzaren kopuruarekin:

Partida			PROPOSAMEN
1 0100.622.432.00.01	MOLLABERRI BIRGAITZEA	6	850.000,00
1 0100.601.134.00.01	ITZURUNBIDEA IGOGAILUA	6	675.000,00
1 0100.622.334.02.02	KOMENTUKO LORATEGIA	6	400.000,00
1 0100.629.334.02.01	KOMENTUKO KAPERA	6	400.000,00
1 0100.622.173.00.05	SANTIAGO ARRAPALA	6	200.000,00
1 0100.601.153.21.01	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	6	88.200,00
1 0100.629.334.02.02	KOMENTUKO EKIPAMENDUA	6	50.000,00

Honez gain urteroko eta herriak behar dituen mantenimentu eta hobetze obrekin jarraituko dugu, Esan baita ere eta haseran aipatu dudan moduan Aurrekontu hauek Arau Fiskalen aktibazioarekin datozela, honek dakartzan limitazioekin. 2024eko likidazioaren ondoren bestelako inbertsio batzuk ere Aurrera eramateko asmoa du Udal Gobernu honek. Txertaketa hauek gerakinetik egingo dira baita urtean zehar beharren arabera ikusten ditugun beste inbertsio batzuk ere.

Beste modu batera izan ezin duen bezala Udal politikaren ardatz nagusia gizarte arlokoa da. Zumaiako Udalak berezkoak dituen baliabideen zati handi bat bideratzen du gizarte gastura.

Gizarte arlora bideratutako ekintza nagusiak honako hauek dira, aipagarrienak:

- Emakumeen etxearekin dugun hitzarmena: 45.000€ tik 90.000 €ra pasa da, bertan egiten den lanak herrian duen balorazio ona eta gero eta arreta zerbitzu haundiagoa dela eta.
- Alokairua sustatzeko dirulaguntza: 50.000 €. Dirulaguntzaz haratago Alor honetan ere lanketa berezia egingo da 2025an. Zumaiako etxe hutsen zenbatekoak eta egoerak aztertu eta Gune Tentsionatu izendatzearekin bat hartu ditzazkegun erabakiak indartzeko.
- Euskararentzako dirulaguntzak: >100.000 € Hemen ere eskoletan 2 urteko lanketa berezia
- Kirol dirulaguntzak federatuentzat: 110.000€
- Kirol Jardueretarako dirulaguntzak: 52.500€
- Babespeko apartamentuetarako dirulaguntza: 55.000 €



– Merkataritza dirulaguntzak: 80.000€

Sormena, Jaiak, Musika Elkartea eta Musika banda, Kultur taldeak eta nola ez Baliabide gabeko pertsonak, Malen Etxea, Gizarte Larrialdiak, eta Nazioarteko lankidetzaren ere dirulaguntza hauen barne egongo dira.

Lanketa handia izan da baina pena merezi izan duela iruditzen zaigu, ez dira garai errazak, Zerbitzuen kalitatea mantentzeak kostuen igoera dakarrelako, honek betiko formuletatik atera eta gauzak beste ikuspuntu batetik egitea dakar, eta egin dugu.

Kalitatezko zerbitzuak mantenduko ditugu, eta ahal den eina igo gainera, kudeatzen dugun dirua Herritarrena delako eta beraiengan jarri behar delako fokoa. Etorkizunerako Inbertsio garrantzitsuak eta egunerokorako zerbitzuak uztartuko ditugu.

Zumaia bizitzeko nahi dugulako: gure helduak zaintzen, maitatzen eta goxatzen jarraitzeko, gure umeei espazio libreetan eta jasangarrietan jolas dezaten, berdintasuna oinarri duen herri bat izateko. Kultura eta Euskara Zaintzen duen Herria garelako, guzti horretarako dira aurrekontu hauek.

Eskertu udaleko teknikarien lanetari, bereziki Ogasuneko taldeari gauzak hainbeste erraztearren.

Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko, Unai. Gero bukaeran nahi baldin baduzu egingo dugu.

JOSE MIGUEL ANTIA ALBIZU: Normalki, holaxen instituzio guztietan, horrelako aurrekontuak aurkeztu behar direnean, balantzeak, edo zerbait, normalki lagundu egiten du PowerPoint batek edo holako zerbaitek. Esplikazio garbia emateko, guk ulertzeko errexo dalako. Hastebazea, bum bum bum datuak ematen, batetik bestea gainare pasata, eztaikit partida batetik bestea, ta esplikatzeko hain axkar, eske ya galdu itegea. Beste bateako, eskatuko nuke behintzat azalpenak egiteko beste modu batera.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Bai, bueno eztaikit, aipatu diran zifrak dira hilabete, azkenengo hilabete hontan manejatzen eon geanak talde guztiyak, eztaikit, ez zaigu guri behintzat arrotzak iten, igual ikustea etorri zaigunei bai ipini dezakegu zea bat. Kontuan hartuko dugu.

Bale, hasiko gea zuen emendakinak aurkezten. Zure hitza lker.



**ZUMAIAKO EAJ-PNV UDAL TALDEAK 2025eko UDAL AURREKONTU  
PROPOSAMENARI EGITEKO AURKEZTEN DITUEN ZUZENKETA  
PROPOSAMENAK**

**1.- Herri partehartzea eta gardentasuna:**

Aurreko urteetan eskatu izan dugu; eta gardentasunaren eta herritarrak uneoro informatuta egoteko duten eskumenaren alde egiten dugu.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Plenoak telebisatzea	- €	5.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu saila:			
	6XX.334.02.01	KOMENTUKO KAPERAK	

**2.- Heziketa:**

Merkataritza eta heziketa uztartu nahi ditugu. Gazteek dituzten kontsumo ohiturak eta joerak herrian kontsumitzeko ohituretara bideratzea, heziketa interesgarria deritzogu.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Kontsumo eskola	- €	15.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu saila:			
	6XX.334.02.01	KOMENTUKO KAPERAK	

**3.-Irisgarritasuna:**

Kiroldegi inguruan erabiltzaile kopuru handiak eraginda, batez ere arratsaldetan, bizikleta pilaketa handiak sortzen dira eta ibaiaren alboko espaloiko barandari lotuta egoten dira bizikletak oinezkoei lekua kenduz.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	<b>Bizikletak aparkatzeko eremua Osasun Zentroa eta kiroldegiaren artean.</b> Azpiegitura honek errebisio oso bat behar du herri osoan, eta dagokion plangintza egin behar	- €	60.000 €





da; baina, hemendik has  
gaitezke.

**Gutxitzea proposatzen den kontu saila:**

6XX.334.02.01 KOMENTUKO  
KAPERA  
40.000 €

**4.- Kale azpiegiturak:**

Herriko hainbat haur parkek modernizatzeko beharra daukatela uste dugu. Modernizazio hau urteroko planifikazio baten barnean garatu daiteke, lehen urratsa partida honen bidez emanez.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
1 0100.622.153.30.02	<b>Haur parkeak (ULO).</b> Urteroko planifikazio baten barruan	---	100.000 €
<b>Gutxitzea proposatzen den kontu saila:</b>			
	601.133.00.02	BIDE SEÑALIZAZIOA, MARGOKETA	10.000 €
	622.920.10.01	HOBETZE LANAK ERAIKIN PUBLIKOETAN	10.000 €
	609.171.00.01	BARATZAK	4.000 €
	625.920.00.01	ALTZARIAK UDAL ERAIKINETAN	2.500 €
	626.334.02.01	TIMELAPSE	1.500 €
	1 0100.227.173.00.99	HONDARTZETAKO ZAINZA	50.000 €
	1 0500.227.231.20.96	EGUNEKO ZENTROA HAINBAT GASTU	15.000 €
	1 0100.226.338.00.90	(garraioak, montaiak, ...)	
		-7.000 €	

**5.- Kale azpiegiturak:**

Talaiepeko komuna berritzeaz gain, herriko gainerako komunak ere berritzen joan eta komun autogarbigarriak herrian txertatzea beharrezkoa dela uste dugu.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
1 0100.622.311.00.02	<b>Komunak.</b> Urteroko planifikazio baten barruan (Fielato, Amaia Plaza, Gernika Parkea, ...)	10.000 €	40.000 €
<b>Gutxitzea proposatzen den kontu saila:</b>			
		6XX.334.02.01 KOMENTUKO KAPERA	



**6.- Kirola:**

Kiroldegiko eta itsas kiroldegiko gimnasioetako makineria zeharo zaharkitua dago; eta batzordeetan azaldu izan dugun bezala, urteroko planifikazio baten bitartez berritzen joatea beharrezkoa deritzogu.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
1 0100.623.342.01.01	<b>Gimnasioko makineria.</b> Kiroldegiko eta Itsas kiroldegiko gimnasioko makineria. Materiala eta azpiegiturak zaharkituak gelditzen ari dira. Zerbitzu publikoa mantendu beharra dago.	18.150 €	108.150 €
<b>Gutxitzea proposatzen den kontu saila:</b>			
	6XX.334.02.01	KOMENTUKO KAPERA	-90.000 €

**7.-Kolektiboen ongizatea:**

Jubilatuen etxeak berrikuntza premia handia dauka; eta horretaz gain, martxoak 21eko Osoko Bilkuran, emergentzia klimatikoa dela eta, beroaren aurkako babesguneak sortzea edo egokitzea onartu zen aho batez. Jubilatuen etxean aire girotu instalazio egoki bat ezartzea, Zumaian beroari aurre egiteko ezinbesteko ekintza da.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	<b>Jubilatuen hogarrean aire girotua jarri.</b> Emergentzia klimatikoaren aurrean beroaren aurkako babesgunea izan dadin.	- €	200.000 €
<b>Gutxitzea proposatzen den kontu saila:</b>			
	6XX.334.02.01	KOMENTUKO KAPERA	-200.000 €

**8.- Kultur ondarea. Ekonomia sustapena:**

Kofradia herriko txoko kuttunenetako bat da, gelditzen den azken benta klasikoa da; eta balorean jarri eta bertako produktuen eta informazio puntu bezala erabiltzeko gune aproposa dela deritzogu.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
-------------	--------------	----------------------	-----------------------



<b>KONTU-SAIL BERRIA</b>	<b>Kofradiako eraikina.</b> Justa taberna izan zen lokalean ticket salmenta, bertako produktuen balorazio puntua, informazio puntua, azken bentaren bisitak dinamizatzeko, ...)	- €	<b>20.000 €</b>
<b>Gutxitzea proposatzen den kontu saila:</b>			
	1 0500.227.231.10.99	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	

**9.- Udal ondarea:**

Ez da lehen aldia gai hau mahai gainean ezartzen dugula. Adibide bezala, Udalak eraikin berri bat izango du hemendik aurrera (Komentua) eta Ubillos Jauregia hutsik geldituko da. Eraikin hauetaz gain, Udalak dituen eraikin guztien katalogazioa eta erabilerak zehaztea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
<b>KONTU-SAIL BERRIA</b>	<b>Udal eraikinen azterketa</b>		<b>15.000 €</b>
<b>Gutxitzea proposatzen den kontu saila:</b>			
	1 0500.227.231.10.99	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	-15.000 €

**Zumaian, 2024ko azaroaren 22an**

**Jose Migel Antia Albizu**

Zumaiaiko EAJ-PNV udal taldeko bozeramailea

IKER MARDARAS: Arratsalde on. Bueno dakizuenez guk bederlatzi emendakin aurkeztu ditugu aurrekontura. Aipatu nahi nuke nondikan finantzatu ditugun eta zergaitik hartu ditugun partida horiek. Guk proposatu ditugun aldaketak 535.000 euroko zenbatekoa imitatzen dute guztira. Eta batez ere kapitulu handiena hor da konbentuko kaperaren atala hor 400.000 euro jasotzen dituen. Bueno gure ustez komentuko kapera ya obra zibila eginda dagoen heinean, ez dauka hainbesteko lehentasunik behintzat gure ikuspegitik. Eta urtean zehar egin daiteke eta baita ere gerakinetik atera. Era berean, ba lehentasuna eman beste kapitulu batzuei, ez bakarrik konbentuari. Gero badaude beste partida txiki batzuk, hartu ditugula ordezketa bat iten, bide seinalizazioa eta margoketa ba



adibidez hor inkorporatu daiteke. Izan ere, 15.000 euro zeuden aurrekontuan eta momentuz exekutatu dia 1000 ta piku euro, 1300 euro eta beraz, uste dut inkorporatu daitekela. Aurten ez den egin gastua.

Berdin, egokitze obrak eraikin publikoetan. Baratzetan, azken urte hontan 10.000 euro aurreikusi dia, ez da ezer gastatu, inbertitu, ez da erabili partida hau eta beraz inkorporatu egin daiteke.

Altzariak udal eraikinetan ba azken bi urteetan 12.000 euro gastatu dia. Ba bueno behintzat urte hau gutxiago gastatu daitekeela eta 2500 euro beraz kendu egin ditugu. Timelapsea 1.500 euro uste dugu ez dela beharrezkoa gastu bat prezindiblea dala eta hondartzetako zaintza kontratuan nahiz eta kontratua iyo hor kendu deun kopurua oaindikan ehuneko 20ko gorakada mantentzen du partidan, ustez nahikoa dela. Gero hor daude beste bi gastu gizate-zerbitzukuak dianak, etxez-etxeko laguntza eta eguneko zentroa. Etxez etxeko laguntza, 25.000 eurotan kendu deu, beraz, partida 565.000 eurotan jarri deu. Eta momentu hontan topea ejekuzioarena ez da 450.000 eurotara heltzen azken urteotan, beraz, marjina dago baita, bai orduak eta bai lan hitzarmenen gorakada absorbitzeko. Beraz, hortan marjina dago esaten dudan bezala. Eta eguneko zentroekin be horrenbeste. Eta gero hainbat gastuetan, hor 27.000 euro daude. 7000 euro sartzen ditugu. Hor ikusten dugu askotan komentatu dugu jaietako "cajón desastrea" dala eta gure gure ustez bai optimizatu daitekeela partida hortan. Hori pixkat justifikatzearren eta zergatik hartu ditugu toki batetikan eta ez beste toki batean. Guk aurreikusten genuen banan-banan ez aurkeztea osotasunean egingo dugu berdin, berdin zaigu, baina batzuk nik egingo ditut eta beste batzuk Xabierrek egingo ditu. Bestela nitaz aspertuko zarete seguramente.

Ordun ordenan nijoa. Lehendabiziko zuzenketa ba bueno herri parte-hartzea eta gardentasunaren inguruan dator. Hau klasikoa bat bihurtzen ari da eta klasiko guztiak onak eta iraunkorrak dia eta bueno jarraituko dogu. Alegia da, plenoak streaming bitartez edo telebista bitartez retrasmittzea. Uste dut ya hau klasiko bat izan beharrean ere bai, gabezi bat bihurtuko dela denbora gutxian, ze inguruko herri guztiak halako baliabideak dituzte. Uste dut gure lana jendeari hurbiltzeko ezinbesteko lanabesa dala eta era berean ba herritarra informatzeko, ez honea etortzen edo aktak publikatzen, publikatua daudenean. Baizik eta nahi duenean eta nahi duen tokian ikusteko. Hor ein degu balorazioa, 5000 euro. Bueno, beste udalerrri batzuetan begiraturuz eta bueno ikusi beharko litzateke, baina kantitate hori, orientatiboa da.

Bigarrena, heziketari buruz da eta bueno merkataritza ere bai, kontsumo eskola baten eraketan datza. Bueno beste herri batzuetan ikusi dugun inizatiba da eta interesgarria ikusten deu. Batez ere Merkataritza Planaren inguruan inspiratu digu behintzat kontzientziazio palanka edo ardatza bultzatzeko. Eta baita ere heziketarekin azkenean, ba oraingo gazteak dira etorkizuneko gure bezeroak. Hemen da behintzat da kontzientziazioa da. Nola kontsumitu, azken finean daukagu mundu hau eta dagoen, pixkat filosofikoa jarriko naiz, barkatu, baina daukagun mundua ere bai kontsumitzen dugun moduagatik daukagu. Eta nire ustez eta gure ustez heziketa kontsumoaren arloan oso interesgarria eta beharrezkoa da, ez bakarrik era lokalean eta bertoko merkataritzan, kontsumitzeko, baizik eta ba bueno elikadura segurtasunaz jabetzeko, nutrizioaz



jabetzeko edo markismoaren edo publizitatearen edo sareen influentzia behintzat gestionatzen jakiteko.

Hirugarrenarekin nijoa. Eta gero Xabier pasatuko da, irisgarritasunaren aldean. Hor proposatzen dugu bizikletak aparkatzeko eremu bat osasun zentroa eta kiroldegi artean. Ikusiko duzue ba bueno hor bizikleta nahiko pilatzen dela, dauden uak edo inbertituak urriak gelditzen dira, barandillak, erriyoko barandillak, asko hor gelditzen dira jasota. Eta hor ba Osasun Zentroan dagoen enparantza txiki hortan badaude bi lerro jartzeko tokiak. Eta hori 60.000 eurotan baloratu dugu. Xabierrek jarraituko du, eskerrik asko.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ: Arratsalde on. Laugarren proposamena kaleko azpiegituretatik dator. Lehengo urtean haur parkeak partida bat zeukan, aurten kendu egin da partida hori, mantenimentukoa mantendu da, baina iruditzen zaigu ba bueno herriko parkeak modernizatu beharra daukatela. Badaude bereziki batzuk aspalditik, Jadarrekoa adibidez edo San Migelekoa eta bueno egunero asko ibiltzen diren beste parke batzuk Beheko plazakoa edo Amaia plazakoa modernizatzeko gauza batzuk, esango nuke ia-ia berriak egiteko. Hortan ehun bat mila euro jarri ditugu mahai, ikusita ba bueno buelta haundi bat eman beharko geniokeela haur parken modernizazio edo berritzeari.

Bosgarrenkoa, komunak izango lirateke. Aurten Talaipeko komunak berriro dira baino bueno herrian ditugun beste komunak, Fielatokoa, Amaia plazakoa, Gernikako parkean lehen zegoena eta gaur ez dagoena. Iruditzen zaigu ya komunak modernizatu egin behar direla komun autogarbigarriak izan behar direla eta bueno, era txukun batean mantendu behar direla eta ahalik eta ba bueno 24 orduan irekita eta ahalik eta erabilgarrien orduan, kasu hontan 10.000tik 40.000ra pasa da partida hau existitzen da, guk 30.000 euro gehiago jartzea pentsatu dugu.

Seigarren proposamena kirolari dagokio. Kiroldegiko eta itsas Kiroldegiko gimnasio etako makineria ba bueno azken bileretan ba zaharkituta dagoela aipatu digute, ikusi egin dugu bai Itsas Kiroldegiko eta baita ere kiroldegikoa. Gero eta eskari handiagoa dago. Taldeak ari dira bereziki eskatzen gune hori uzteko ordu batzuetan adibidez, Itsas Kiroldegikoa. Eta bueno iruditu zaigu gero eta talde gehiago daudenez gimnasioko makineriaren erabileraren kontu honekin ba bueno buelta handi bat eman behar zaio poliki-poliki azken urteetan, oso geldi egon den partida bat da. Lehengo urtean 18.150 egon ziren, aurten berriro horiek jartzen dira. Guri iruditzen zaigu golpean 100.000 igo behar direla bai kiroldegian eta bereziki itsas Kiroldegiko bi gunetan, piraguakoak eta arraunekoak.

Zazpigarrenkoa, Martxoan 21eko osoko bilkuran, emergentzia klimatikoa dela-eta ba bueno beroaren aurkako babes guneak sortzea denok aho batez erabaki genuen. Eta bueno guretzat, bueno kolektiboan ongizatea dela-eta jubilatuen etxea da puntu berezi bat eta instalazio honek aspalditik mantenimentu oso bajua dauka eta inbertsioa baita ere. Eta iruditzen zaigu ba bueno aire girotua edifizio guztian eta bueno beste teknologia batzuk ere jarri daitezkeela. Bueno beraien gunea babesgune bat izateko, bereziki berotik. Ondorioz hau sail berri bat da eta 200.000-ko partida bat jartzea proposatu dugu.



Azken biak Ikerrek.

IKER MARDARAS: Azken biak, ta ya bukatzeko. Bai kultur ondarean eta ekonomia sustapen hau uztartuz kofradian lehengo Justa tabernan delako tokian, hor, lokal hori beriz ere proposatzen dugu atontzea, nolabait. Hor zerbitzu gune bat izateko bai tikentzako edo bai turismo aldearentzako edo bai bertoko produktuak eta tokia bertaratzeko. Era berean, kofradia den gune historiko bat bezala ere jendea erakartzeko. Arazoak, beti hor daukagu nolabait toki hori balorizatzeko behintzat pegak edo oztopoak. Eta hau behintzat oztopo horiek ba salbatuko lituzke. Eta hor 20.000 euro behintzat txertatzea proposatzen dugu.

Bukaeran. Ba aspaldi ere ekarri dugun proposamen bat udal ondareari buruz ta da udal eraikinen azterketa bat egitea. Bueno udalak baditu hainbat eraikin. Orain konbentua martxan jarriko da, Ubillos jarriko da. Badaude beste azpiegitura batzuk ere bai. Eta bueno hor nolabait, egin behar da azterketa bat. Zer egin litekeen. Hainbeste ondasunekin behintzat, ba bueno nolabaiteko ibilbide bat argi izateko. Eta besterik ez, eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko. Iker eta Xabier.

Alkateak ondoren hitza eman dio Duñikeri.

DUÑIKE AGIRREZABALAGA UGARTE: Arratsalde on danoi. Eta bueno alde batetik eskerrak eman aurtengo aurrekontuan badakalako generoen txostena, aurreko urtean eskatu nuen bezala eta bueno nik uste dut danoi lagunduko digula ba txertatzen ez lehentasuneko politika ba zeregina edukitzen duten egiten dugun guztiekin.

Beste aldetik, bi proposamen aurkezu ditut:

Lehentasunez Zumaiako kaleetan berdexka kentzeko kanpaina bat egiteko, Idazkari kaletik, Petxatoki kaletatik eta dauden eskaileretatik hasita. Bertan baranda bat jarriko da. Halaber, berdexka beste kale batzuetatik eta oinezkoentzako ibilbideetako espazioetatik kentzea indartuko da.

Era berean, Hirigintza Sailaren udal artxiboa hobetzeko eta ordenatzeko sistema bat aztertzen joateko konpromisoa hartzen da, artxiboaren erabilgarritasuna eta irisgarritasuna errazteko, udalak garatu behar duen modernizazio prozesuan integratuta.

Eta bueno hauek dira nire bi proposamenak.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko, Duñike.

UNAI LARRAÑAGA: Zuen baimenarekin lehenengo Duñikei erantzungoiet batik bat motxo dalako. Ados gaude proposatzeituzun eskaerekin, bai edukiekin eta bai formekin. Formak garrantzia dute. Eta hor ondo elkartu gara eta ondo, ondo planteatu ditugu nola sartu eta nola txertatu gure aurrekontuetan, esan genizun



bezela bi partida izango genituzke, esango genuna prest, kale garbiketakua baina bai eskatuko da lanketa berezi hori egiteko, gune heze hoiek lokalizatzeko herrian zehar eta hori garbitzeko, barandillana ere esanda bezela oain Zumaienan egin dugun bezala, beste puntu batzuk ere badauzkagu lokalizatuta hirigintzan eta hori bat da. Eta azkenik hirigintzako artxiboei dagokionez, ba baita ere lanketa hori martxan dago. Hurrengo urterako aurten hasita ea nola ematen zakon forma bere generalidadien eta horri ere emango diyou bere lehenasuna eta jarriko gara horrekin lanean 2025ean. Beraz, ba erantzuten emendakinari baiezkoa izango da gure bozka.

EAJ-koak aurkeztutako emendakinei lotuta eta zeuei ba aurreratu genizuen moduan, kasu honetan gure bozka ezezkoa izango da. Aurkeztutakoa ezin dugu onartu eta ez arazo nagusia ez talako planteatutakue, zeren gainera asko ta asko aurrekontutan partidak dituzte, beste gauza batzuk idatziz inkluso erantzun genizuen adibidez, ez nahiz danetan sartuko, baina haur parkien lanketa ba haur kontseilua ari da aurten egiten eta hurrengo ekainean bukatuko da. Bitartean Mariantoneko azkeneko zeak emango dia, azkeneko loturak eta hori da adibidez gerakinetatiken behin likidazio ondoren txertaketa bidez egingo deun partida bat. Orduan lanketa hori ba bueno dakitenei uzten ari gara diala umiak ze nahiko luketen eta zer ez. Eh bestelako aldaketetan ba bueno ba adibidez bizikletan toki hori, ba kentzen dezuten partida batian sarrera eduki leikezan edo hori bota eduki leikezun zea bat da eta da hori da hiri altzariena. Orduan batetik kendu eta bestetik sartu ba hor bestiakin egin duen bezela dauzkeun partida orokorretan sartu ahal ditugun gauzak, ba kasu honetan zeuek ere kentzea ekartzen dezute, baina bueno hor batetik eta bestetik pixka bat ikusten du kontraesantsua. Baina batik bat ez naiz zentratuko hortan, zentratuko naiz kentzia proposatu dituzunetan.

Zeren kentzea proposatu dituzutenak nik uste dut bazakizutela guk ere ezin ditugula onartu, gizarte-zerbitzuak dialako eta kultura dalako. Etxez etxekoa, eguneko zentroa edo konbentuko kapera, besteak beste, batzutan murriztu, bestian osotasunean kendu edo oain ba bueno atzerapena izan da. Bueno esan dudan bezala, ezezkoa izango da gure bozka, baina nik susmo daukatena da ba bueno bazekizutela zeuek ere aurkeztu aurretikan ba ezingo genula hau onartu eta negoziatio bat bilau berrien ba bueno ba titular baten bila edo joateko ba susmo hori ikusten ikusten dugu eta ekintzak horrela erakusten digute. Zuen planteamenduetan bederatzi zuzenketa planteatzen dituzue 535.000 euro guztira. Baina klaro albiste horretan eta titular horretan falta zitzaizuen da bueno jende aurrean behintzat nondik kendu, ze planteatzen zenuten. Eta hori egien erdiye kontatzie bakarrik dala usten det. Ta atzo kasualidadez irakurtzen nuen Baleiken ba egi erdiak eta gezurrak tankerakoak omen direla politikan. Beraz, ba zuen planteamendua benetan gizarte zerbitzu eta kulturaren proposatu dituzuela murrizketak da. Eta hor ba bueno kapera kentzea igual errazenera jotzie da, ba 400.000 euro dalako, bultoko partida bat delako. Orain igual atzeratze da edo ez dula, horrek behintzat prioridadeik beste gauza batzuk prioritario ikusten dituzte. Guk ez, garbi dagonez, hiru urte zaharberitzen pasatu ditugulako konbentua eta guretzako kapera ba konbentuan bihotzetakoa dalako. Azkenien ekipazio hori atzeratzera ba herriko kultura eta ikus-entzunezko motor izan nahi duen kapera, ez ekipatzea edo ekipazio hori atzeratzea da. Beraz, ba esan duen bezala, hori



onartzea ezinezkoa egiten zaigu. Eta ba bueno zuen proposamenean ba garbi eta argi erakusten da momentuz behintzat ez zagon inolako asteriskoik eta konbentuko kapera hori kentzea jartzen zenutela. Hori 400.000 euro. Baina hor ez da geratzen 135.000 euro gehio osatzeko, bueno, jun zarete gauza txikitxo batzuk, baina larritzat jotzen duguna da etxeko, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren 35.000 eta ez 25.000 oker ez baldin banago behintzat. Ez dut ondo ulertu. Orduan barkatu egin, kentzea da eguneko, etxez-etxeko laguntza zerbitzutik eta 15.000 euro kentzea proposatzen dezute eguneko zentrotik. Hainbatetan aipatutako zaintzatik. Beraz, 50.000 euro kentzie eta behar gehiena dutenei 50.000 euro kentzie. Zuentzat murizketak guretzat agian justizia soziala, ezta. Eta hortik sekula ez dugu kenduko euro bakar bat, baina ezta moralki zalantzak horra edo bueno edo doiketa bat egin daiteke edo ez, eske bi partida hauek kontratu bidez dijudzte eta gaur etxez etxeko kontratua, adjudikatze deu. Non argi eta garbi erakusten duen orduko kostia 33,26 eurokoa dela. 18.000 ordu lizitatzea ditugula gehiengoz, baina partidari legalki edo teknikoki nik derrigorrean 597.600eko partida bat sortu behar detela, zeren bestela lizitatzen detena eta gero hori ematen dioten partida ezta berdina geratzen. Beraz, gutxien gutxien-gutxienik 597.600 lizitatu beharko genituzke. Hori Etxez etxekuei dagokionez. Eta eguneko zentrueri dagokionez, hau ere, bueno igual jakin beharko zenuten, baina bueno hau Aldundiarekin lotutako zerbitzua da. Eta gastuetatik 15.000 kentze baldin badituz, sarreretatik ere 15.000 euro kendu behar dituz. Zeren partida bixkiyek dira, ispilu partidak deituta, eta efektua neutroa izan behar du, hau da, sarreratan jarri al detena gastutan jarri dezaket edo gastuetan jarri ahal dudana sarreran jarri dezaket. Beraz, 15.000 euro horiek kentzea, ba gure aurrekontuek defizit egoera batean sartzea eramango luke. Sorosleiena, eta bukatzen nijoa, 50.000 euro. Tekniko baten kalkuluek die. Nik esan dudana bezala, lehen 50.000 ez seguramante 360.000 euro danak kenduko nituzke, baina zuhurtzia printzipioagatik, 360.000 euro sartu ditugu. Eta esan dudana bezala, tekniko baten kalkuluen araberrako importe bat da. Asko, gutxi, danok dakigu ze kostu suposatzen duen honek baino iruitze zait teknikoei bere lana egiten utzi behar zaiola eta nik behintzat haien jarraipenak jarraitzen dituz.

Eta hori da, azken finean gure bozka ezezkoa izango da, zeren ezta proposatzen duzuna bakarrik, baizik eta kentzen dezutena gizarte zerbitzuak eta kultura dialako. Besterik gabe, eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Unai, zerbait komentatzeko? Bai, Iker.

IKER MARDARAS: Kaixo, arratsalde on. Bueno. Alde batetik eztaikit gauza batzuk esan dituzu, ez dizut ulertu, egia edo ez egia edo erdizkako egiak esan ditugula. Uste dut de frente jun geala eta zergaitik eta hartu ditugun neurri hauek eta finantzaketa hauek. Gu ezezko borobila jaso dugu inolako elkarizketarik izan gabe. Jaso dugu "ez" eta punto ez dakidana jakin behar genuen, baina ere ez digu esan inolaz ere hitz egiteko edo gauza hauek konpartitzeko edo zergati hauek komentatzeko eta konbenturen, eta ez goaz titularrera. Azken finean guk hartu dugu behintzat, uste dut, oposizio bezala eredu alternatibo bat aurkeztu behar degula. Eta oposizioa ere bezala ere bai. Herrian dauden beste behar batzuei eta beste herritarrok, zuei botatzen ez dizuen beste herritarrok eskatzen dituzten gauzei ere erantzuna eman behar diogu. Eta jarri behar dugu nondikan





guk zer egingo genukeen. Eta esan dizudan bezala, kaperaren asuntoan, hor badago marjina, ahal baldin bada, eh dirua mugitzeko eta kapera egiteko. Nik ez dut esaten kapera ez egitea, baizik eta beste modu batean egitea eta beste gauza batzuei sarrera ematea aurrekontuan eta lehentasuna ematea. Besterik ez.

Gero gizarte zerbitzuei buruz, hor uste dut Unai ere bai demagogia izatearekin enfokatzeko zarela. Jabe gea kontratu bat dagoela atzean, ezin dala ikutu, baina partida kontratu hori baino haratago doa. Eta ez dugu hartu partida bat kontratu hori baldintzatzen o kopuru bat beharbada. 587.000 euro hoiek. 87.000 euro horietatik beti bera gelditzen dana, baina bueno bazegoen aukera hortaz komentatzeko eta beste partida batetik atera ahal genuen, baina behintzat gu exekuzioaren mailan eta kontratuaren inguruan ibili gara. Eta ez dugu kendu 200.000 euro, 35.000 euro bakarrik eta beti berraztertuz beraz, uste dut hor demagogia pixka batekin jolasten dezuela guk gizarte sozialen edo gastuaren kontra gaudela edo zuek ez zaudete beti auzi honen santuak izaten eta gu deabruak. Hori behintzat barkatu, ez dizut onartzen.

Eta gero teknikoaren, gomendioa bai beti, baina azken hitza gurea da. Eta nahiz eta teknikoak izan guk hor, soroslearen kontratuan utzi dugu margen nahiko, nun esleipena, ondo egiteko. Eta beti komentatzen dugu, teknikoen arabera, baina azkenean azken hitza gurea da, politikoena, o arduradunena. Eta gero ez dakit Xabierrek esango dun haur parkeei buruz. Umeen kontseilua eta abar oso ondo dago, baina ez da organo exekutibo bat, hartzen duzue edo ez da organo erabakitzaile bat. Eta nik umeen kontseiluari errespetu asko diot eta erabili behar da eta bultzatu behar da. Baina hori jartzen badiogu. Aspaldian daukagun gabezi bat eta parken egoera bat, egoera txar bat berriz luzatzeko. 2022an onartu genuen gure adostasunekin Marianton parkean aurrera ateratzeko eta jartzen badiogu 2022an ez Kontseilua deliberazioak hori eta 2024 eta 2025ean oraindik ez dugu hori izango. Ba uste dut bide polita dela, baina ez dela bidea eraginkorra eta gu ere hemen emaitzak lortzeko gaude eta hiru urte ondoren ez daukagu inolako aurrerapenik azpiegitura hoietan. Ta besterik ez.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Iker, zuk Xabier, benga esan Xabier.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ: Nire zatiarekiko María Antón parkea 2024ko aurrekontuan bazegoen. 2025ekoan ez dago. 2019tik lantzen ari den zerbait da. Nik uste dut umeei aukera bat eman zaie beraiek hitz egiteko eta uste dut umeak ez direla kontutan hartzen ari ze jada aspalditik ari dira 2019tik esan zitzaizkien egingo zela eta ez da bete. Umeei hitz emandakoa bete egin behar da eta ekartzen baditugu ematera beraien proposamenak, beraien ideiak eta nik uste dut ezin zaiela karameloa jarri eta kendu nahi dugunean kendu. Bai, etortzen dira ilusio guztiarekin. Egin zituzten beraien bozetoak ikusi genituen eskura bost edo seigarrengoko liburuxkan. Nik uste dut beraiek daudela zain Marianton parke hori ya ikusteko edo zeuden zain ze 2025ean ez dago. Horrekin batera egunero parkean gabiltzanak egunerokotasunean ikusten ditugu nola dauden parkeak eta adibidez Jadarre parkean ez da inor ibiltzen, zergatik ez da inor ibiltzen? Zeren eta txirrista ni baino zaharragoa da. Txirrista gorriak egurrezko heldu lekuekin jada gaur egun ez daudenak, ez direnak existitzen, ta halako parke batzuk



baditugu Zumaiian. Orduan erabili dituzu hiru hitz kentzea behin eta berriz erabili dozu. Nik esango dizut lkerrek esan duen bezala kentzea gure erabakitik at zegoen bai ze ta zen zeuden zuen partida guztiak apirilera pasatzea geraginetik, lizitazioaren ostean bai, kendu ditugu partida guztiekin ados gaude, ez dugu arazorik kaperarekin esan dituzun hobetze lanekin, altzairu, udal eraikinekin ta abar ta abar kentzeko inongo intentziorik ez zegoen, berriaren bila nor dabilen duda egingo nuke, ni ala zu. Bai esan duzu gu berri baten bila gabiltzala, kultura, gizarte-zerbitzuak, kulturaren eta gizarte zerbitzuen alde gaude eta horregatik egiten ditugu, egiten ditugun apostuak. Ezberdinak dira? Bai, desberdinak dira, baina horrek ez du esan nahi zuk esan duzun bezala, guretzat ez direla garrantzitsuak. Orduan berrien kontua nik alde batera utziko nuke ikuspuntu ezberdinak bai. Baina intentzio txarra ez eta kentzekoa berriz esangoizut lehenetsunak daude, ta apuntatuta daukat. Aurrekontuen aldatzea eskatzen dugu baino dauden gauzak edo proposatu dituzuen gauzak ez kentzea, baizik eta geraginetik apirilean, bai, beste gauza batzuk pentsatuta omen dituzten bezala, zeren eta lehengo urtetik niri falta zaizkit beheko plazako estalpea, kiroldegiko proiektua, zuzendaritza kontratuak, Maria Anton. Ze batzuk zeudenak gaur egun ez daude aurrekontuan. Egongo dira? Oraingoz ez daude.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko.

JOSE MIGUEL ANTIA ALBIZU: Esan dezue gizarte sozialan apostua in dezutela aurten eta haunditu egin dituzuela partidak. Ba kapitulo bakarra aipatuko dizut. Laugarrena, transferentzia arruntak. Hor lehengo urtetik hona lehen mailako gizarte-laguntza 9000 euro gutxiago daude. Gizarte larraldietarako laguntzak 35.600 euro gutxiago. Eta ostatu zerbitzu gorakako apartamentuak beste 30.000 gutxiago. Non dago apustua?

IÑAKI OSTOLAZA: Tranpatxoak egiten hasita. Gauza bat da ikusita ze, diru-laguntza horiek nola ematen diren da noraino heltzen diren. Ba da partiduak doitzea eta beste gauza bat da guk lotuta dazkaun kontratuetan adibidez, gero onartuko duguna etxez etxeko laguntzan hortikan partida bat kentzea. Partida bat kentzen baldin badugu, ezin da aurrera eraman kontratu hori eta ya eguneko zentroa dakiunian danak hemen udaletxean gaudenak batian gehitzen baldin bada bestian ere kendu iten dala azken finean sarreretan eta gastuetan berdina dala. Hortikan kentzia ez daka zentzu handiegirik. Dena ez, ez... hitza, hitza nik dakat. Eta beste kontu bat komentatu duzu Marianton 19tik gabiltzala bueltaka. Eztakit ni 19tik hemen nago eta ez dakit 19an horrekin hasi giñan edo, zalantzak dauzkat e.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ: 19koa ez dut nik asmatu, bilatu egin det. Horregatik diot, 19tik daude, 2019ko maiatzeko 13an Marianton parkearen aurreproiektuaren inguruan ekarpenak egiteko aukera dute herritarrek. Notizia bat da, ez da nire... aspaldiko kontua dela dio, hori zen kontua eta iruditzen zaidala emandako hitza umeei, bete in beharko litzatekeela.

IÑAKI OSTOLAZA: Diot ze ni hemen alkate nao uste det, ekainaren, 2019ko ekainaren ze egunetan sartu giñen, hogeta pikoan edo. Bai, ez diot ez neukalako nere buruan hori hola izan zanikan, baino bueno lanketa bat egin zen eta lkerrek



komentatu dugun bezala, hogeta bian bai gauzatu zala Haurren Kontseiluan ikusten det haurren kontseiluai ere garrantzia eman behar diola eta loteslea ehuneko 100 ez baldin bada ere bai garrantzia eman behar zaiola eta gero egia da 24an eduki dugula aurrekontua eta ez dugula aurrera eraman, baina bueno 25ean eramango dugu. Zerbait bazeneukan komentatzeko Unai?

UNAI LARRAÑAGA: Bueno, eztakit ya ke interpelazio direktoak izan dian. Berriena, nik ez dut esan erdi egi ta ez erdi gezur baizik eta herriai esplikatzeko zakonean nun zer egin nahi dugun iruitze zaitela esplikau bertzakola baitare nondikan kendu nahi dugun. Eta kentze hori, agian, hitz hori kenduta, garbi dagoena da bakoitzan prioridiak zein diran. Besterik gabe. Batzuk priorizatzeitugu gauza batzuk eta beste batzuk beste gauza batzuk. Hoixe bakarrikan.

IÑAKI OSTOLAZA: Besterik gabe, lehenbizi egingo ditugu bozkatu emendakinak. Lehendabizi bozkatuko ditugu EAJ-ko emendakinak.

**Aldeko botoak: 6 boto (6 EAJ-PNV)**

**Kontrako botoak: 10 boto (EH BILDU)**

**Abstentzioak: 1 boto (Euskal Sozialistak)**

**ERABAKIA:**

Ez dira onartzen EAJ-k aurkeztutako emendakinak.

Bozkatuko dugu PSE-ren proposamena.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV; 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**ERABAKIA:**

**Onartutaz geratzen da PSE-ren proposamena.**

Beraz, honekin bozkatzea pasako dugu, 2025eko aurrekontuak.

IKER MARDARAS: Barkatu Iñaki. Nik nire posizioa irakurri nahiko nuke.

IÑAKI OSTOLAZA: Zerri buruz?

IKER MARDARAS: Aurrekontuei buruz.

IÑAKI OSTOLAZA: A, a, bale barkatu, barkatu, arrazoia



IKER MARDARAS: Kaixo berriz. Gure bozka aurrekontu proiektuari ezezkoa izango da.

Erabaki honen arrazoi eta oinarriak atal ezberdinetan banatzen ditugu.

Lehendabizi, gure taldeak proposatutako zuzenketak balorean jarri nahi nituzke, ezezkoa jaso arren.

Nahiz eta aurrekontu honekin ados ez egon, berau aberasteko eta hobetzeko animoarekin egin ditugu. Neurri eta proposamen anitzak dira, egingarriak eta konkretuak, epe labur era luzerako lan ildoak dituztenak, kopuru handi eta txikikoak (5.000 eurotik 200.000 ra). Guztiak bere osotasunean onargarriak ez balira ere, bazegoen aukera bakarka zenbait onartzeko, malgutasun pixkat erakutziz.

Baina ez da ala izan, eta Udal Gobernutik jasotako erantzuna ezetz borobil izan da azalpen handirik gabe eta hitzegiteko aukerarik gabe. Inositzen dut eta hori da guk pleno honetara aportatzen dugun balorea, badaude beste lehentasun batzuk herrian, harreta behar dutenak eta gure ekarpena zentzu hortatik dijoa.

Beste aldetikan ikuspegi ekonomikotik, Unai egin du azalpen luze eta zehatz bat, gure ikuspegi aurrekontu hau, ez da sendoa.

- Aurrekontu honek EH Bildu udal gobenuaren ohiko ibilbidea darama, aurreko proiektuen jarraipen bat da eta horren ondorioz askotan azaldutako gure kezkek jarraitzen dute.

- Gure talderentzat aldagai kezkarriena Aurrezki Garbiaren bilakaera da. Eta Unai nolabaiteko arrakasta bat bezela aurkezten du, nik behintzat ez dut horrela ikusten. Aurten 880.000 € ingurukoa da. Kopuru hau guztiz eskasa da eta badira hiru urte zenbateko berdintsuarekin. Aurreko urteek izan zuten kopuruaren erdia da. Horrek esan nahi du udalaren aurrezpen eta autofinantzaketarako ahalmena erabat gutxitu eta mugatu dela.

- Nahiz eta 880.000 euro zenbateko nabarmena izan, bere bere benetako garrantzia eta balorea eta kudeaketa on baten adierazgarritasuna Sarrera Arruntekiko konparaketa egiten denean ikusten da. Aurrekontu hau, lehengo urtekoak bezala, %5etik behera aurkitzen da, bere proportzioan gure eredian behintzat beti saiatu gera eta defendatzen degun %12-15 etik urrun.

- EUDELek berak adierazten du aurrezki garbia egoteari buruz hitz egiten hasteko, diru sarrera arrunten baturaren % 5etik gorakoa izan behar dela horren zenbatekoa; maila horretatik behera, gure kasu aurrezki garbiaren zenbatekoa aurrezki garbia hutsa bezala hartzen du edo hutsala, inezistente

- Eta hau badakigu nondik datorren. Kontratu handietatik at gastua handitu eta trinkotu egiten duen eredu batetik.

- Guzti honen ondorioz argi eta garbi dago Udal Gobernuak esandakoak ez bezala, aurrezki maila hau Zumaiako herritarren beharretik urrun dagoela eta ez



da herri baliabideen kudeaketa on baten adierazgarri. Berrito ere, hedabidetan zabaldu den mezu honek ez du errealitatea den bezala deskribatzen.

Uste dugu ere bai Aurrekontu hau ez dela egonkorra.

- Ez ohiko sarreratan oinarritzen delako aurrekontua ekilibratzeko horrela egonkortasunaren arau fiskala betezeko. Horretarako udal lurzoru baten salmenta aurrekisten da 1.200.000 eurotan.

- Ahulezi ekonomikoa azaltzen du honek. Gure ustez lehen azaldutako eredu ekonomikoaren ondorioa eta efektua da. Udalak bere burua finantzatzeko duen gaitasuna behin eta berriz mugatzen duen gastu-eredua ezartzearen ondorioa.

Gero ere esan beharra daukat, azkenen hirigintzako espedienteak kontsultatuz, lurzoru hori 600 m<sup>2</sup>-ko lurzoru bat da eta azkenean salduko dugu 2.000 euro /m<sup>2</sup>-ko prezioan helburua du EH Bilduko Udal Gobernuak, gero etxebizitza libreak egingo diren eremu batean.

Eta hau bitxia da beti, EH Bildu alde batetik herria gune tentsionatua izateko lasterketan dabil eta bestetik tentsionamendu horri hauspoa ematen dien praktikak aurrera eramaten ditu.

Guretzat koherentzia falta da eta diskurtsoaren arabera ez gobernatzea. Eta gure ustez ere, eredu hau ez da jasangarria.

Aurrekontu ez-jasangarri bat aurkezten zaigu, aurrezki garbia sortzeko gaitasun gutxikoa; udal-ondarea saltzen duena, eta diruzaintzako gerakina erabiltzen du aurrekontuan ez dauden proiektuei aurre egiteko.

Norabide hau ezin da urtero mantendu, eta argi dago udalaren kudeaketa ahalmena murriztu dela eta kanpo faktoreen menpe jarri garela, fofinaren ibilbidea kasu. Nere ibilbidean beti esan dizuet Arantxari bere garaian, zuri fofinaren bilakera ezin dala kuota finko bat bezela hartu, fofina Foruaren ekarpena oso ibilbide erregularra izan du eta beti ezin dezu fijoztat hartu milioi erdiko gehikuntza urtero urtero, hor uste dut zuhurtzi gabe jokatu dugula, beraz, Zer salduko dugu datorren urtean? Edo zer ez dugu inbertituko? Proiektu eta erronka handiak ditu Zumaiak horretara bat datorren finantzaketa behar izango dutenak. Adibide gisa Kiroldegia dugu. Edota gure kaleek benetako irisgarritasun bermatzeko behar duten inbertsio maila.

Momentu honetan ez daukagun zorpetzera joan beharko gara momentu batean. Prest al dugu udala horrek suposatzen duen zamari ez bakarrik aurre egiteko, baizik eta beste zerbitzuak ez baldintzatzeko?

**Bukatzer**a noa, gabezietatik. aurrekontu partehartzaileak ez dira izan, orain dela 2 urte burutu zen prozezu hau 2023 eta 2024 urteen artean garatzeko. Ez dugu ulertzen, eta ez dakigu zergatik ez duen jarraipenik izan. Prozezu hauek jarraipena behar dute egonkortzeko eta heritarron konfidantza mantentzeko.

Baina ez bakarrik hori. Garrantzi bizia du bertan aginditakoa betetzea, eta azken bi urtetarako bozkatu diren proiektuetan izan den exekuzio edo betetze maila ikusita emandako hitzetik hurrin gaude edo zaudete.



- 11 ekimenetatik 2 bakarrik burutu dira era oso batean (Haur parkeen hobetzearen lehen fasea 2023an eta Kantxak hobetzea 2024an), hau da, agindutako 500.000 euroetatik, 60.000 euro burutu dira bi urtetan, %12-a.

- Kanpoan gelditu dira, besteak beste:
  - o Igerileku naturala egiteko azterketa.
  - o Eguzki plakak eraikin publikoetan.
  - o Estalpea Erkiben.
  - o Pump track-a.
  - o Haur parkeak hobetzeko bigarren fase bat.
  - o Bidegorri sareen azterketa.

- Non daude proiektu hauek? Ez al gara batzartu, ez al dugu hausnartu, ez al dugu bozkatu? Honetarako?

- Honek lotura du beste proiektuekin dagoen exekuzio faltarekin eta Xabierrek aipatu ditu.

- o Non dago Marianton parkea?
- o Aitzuri frontoiko argiteria?
- o Non dago kiroldegiaren proiektu zuzendaritza?
- o Errekarga puntuak?
- o Itsaskiroldegiko grua?

- Proiektu asko egin gabe eta egindakoetatik hainbat aurreko urtetakoak, udal gobernuaren exekuzio faltaren adierazgarri.

- Paperak dena jasaten du.

Azken finean, ondorio bezala, arau fiskalen eteteak aurrekontu politikak eta potoloak aurkezteko aukera eman du, kasu askotan kea saltzeko aukera alegia.

Eskerrik asko.

IÑAKI OSTOLAZA: Zuri, Iker. Nik, bueno, Unai ei hitza pasa aurretik, ñabardura bat. Lehen esan diguzu demagogia egin dugula. Nik usten det zuk Juan Belmonte kooperazio horretan ere demagogia nabarmena egin duzula. Alde batetikan gune tentsionatua izendatzen ai geala eta beste alde batetikan, etxebizitza libreak sustatzen ari garela gu ez gea etxebizitza librea sustatzen ari, operazio hori arau subsidiarioetan hola dago eta guk ez genittun onartu arau subsidiario horiek eta holaxen joan dira aurretikan eta ez dia lursailaren truke diru hori, baizik eta lursaila gehi aprobetxamendua edo sortzen dena, osotasunean. Hori puntualizatuta, ñabardura hori argitu ondoren, Duñikek, bai, badakazu zerbait komentatzeko? Bale, Unai?

UNAI LARRAÑAGA: Bueno, nik uste dut zuen baloraziyure gure ezetzan ondorenetik datorrela eta ulertu dezaket, nola hitzak zeuk esan dezun bezela



dana onartzen duen eta ematen duenez ba hitzak, ba hankaren bat zapal dezakeen edo behatzen bat. Zenbakietara joango naiz lker. Aurrekontuak erabiltzen dituzte behin eta berriz idatzita egongo baldin bazian bezela, harri baten ezta? Guk aurrekontuak lan tresna bezala ibiltzen ditugu, lan tresna bizi eta urte guzfirako lan tresna bezala. Eta hor bai eiten deula eragiketa zintzoa. Nik gaur ekarri nezakeen, nik pertsonalki gainera jartzen da 1.2, 1.3, 1.5eko aurrezki garbiarekin. Tal kual,zuek egin dezuten bezalaxe, partida batzuk kendu eta bestetik doikuntzak jarriaz edo murrizketa batzuk eginez. "Osea que" 800.000 euro bada, baina gauza bat da aurrekontua eta ez dakit zenbat aldiz aurkeztu detan eta beste kontua da likidazioa, bale. Likidazyukin sartuta 2023an adibidez, zeren 24ko likidaziorik ez dakatenez 686.000 euroko aurrekontuan aurkeztu zen aurrezki garbia. Likidazioan 2.123.000 euroko aurrezki garbi bat eontzan. Horrek ekarriko digu esatia orduan ezteguna guk esandakoa egiten. Bueno, datuetara juten baldin bagea, 2015etik hartu ditut likidazioak. 2015ean udal honen gerakina 3.6 milioikua zan. 2018ko likidazioan, hau da, maiatzean edo apirilean, 2019ko apirilean egiten dan likidazio horretan 5 milioi eta hirurehunekua zen. Hau da, 15etik 18ra 1,7 igo zen gerakina. Bale. 2018tik 2023ko likidazio arte. 2023an, aurten egin deun likidazioan 9.1 milioiko gerakina dakau. 2024ko likidazioan ikusiko dugu hori zenbat geratzean, baina hala ere, 2018kotik goitikan geratuko da argi eta garbi. Inbertsiotan 2015etik 2018ra 5.656.000 euro esango det, ba bideratu zenituzten zuek zeundetelako. 2019tik 2023ra, 11,5 milioi bideratu dira inbertsiotan, alde pixka bat badago. Eta media oinarri erabiliko bagenuke askotan ibiltzen dezun likidazioan arabera. Eta badakit gure aurrekontuak askotan ba bueno ba geure buruei sartzen diyoula nolabaiteko muga potente bat. Baina bukaeran media obligazio onartuena, 2015etik 18ra, hamabi milioi ta bostehun hamabi koma bost milioikua izan da. Aldiz, 19tik 23ra, pandemia bat tarteko, media bezala hamabost koma zazpi milioiko media obligazio onartuena izan da, ehuneko 26 gehiago, hau da, bai likidazioan eta bai obligazio onartuetan portzentajea izan leike txikiagoa, baina benetan eurotan gastatzen dena eta gastatu dana eta inbertitu dena gehiago izan da. 2018an gerakinarekin. Bueno nik ere ba bueno notiziak ikusi ditudalako eta google danok daukagulako, positibotzat jotzen zen gerakina, kantitate hori, 5,3ko hori. Ba nik 9.1ekue barkakoizute, baina oso positibotzat jotzeko usten det badauzkatela arrazoiak. Esan duzue guk, ba azken urteetako aurrekontu antzekotsuak aurkeztzen ditugu. Akabo. Problema izango zen zerbait desberdina aurkeztuko bagenu, gure koherentzia jarraituyez. ba. Eta ez ahaztu, herritarren diruarekin ari gerala, hau da, herritarretan inbertitu behar degulako, iruitze zaigu gerakina badaukagula eta ahal den neurrian eta gainera, ekonomikoki periodo positiboa dela aprobetxatuz, inbertitzen ari gara eta inbertitzen jarraituko deu. Garai bateko formula zaharrak, non momentu oparoetan kaja gordetzeko erabiltzen zan eta gero txarretan erabiltzeko. Bueno baita ere beste modu batzuk badaude ba "anticíclico" deituriko periodo fiskalak eta horiek dira aprobetxatzen. Dirulaguntzak aprobetxatu ditugu. Bikain, bikain da, bikain eta hor eztago ez demagogiaik eta ezer ez, bikain eta hor daude zenbakiyek historiko zenbaki altuenak, inolako zalantzarik gabe. Lehen esan dudan bezala, zorpetze-maila 4,08, ezerrez. Gogoratzen dut lehengo urtian zeuk esandakua ea zergaitik ez genun aprobetxatu inbertsio batzuk mailegu bitartez egiteko. Eta hori hamen esan zan. Hori esan zenuenean 4,5en zaon interes-tasa, gaur egun 2,5ean. Agian bueno oain maileguak topatzeko ba milioi bakoitzeko 75.000 euro ahorratuko



ginateke. Eta zuek esan dezuten bezela, kiroldegiakin ari zarete mahai baten gaude, nik uste dut kiroldegia behin eta berriro erabiltzen ari zarete eta zuek mahayen zaudeten lanketa baten ari garela iruditzen zait. Esan dudan bezala, zenbakiak hor daude likidaziotan, berriro ere esango det aurrekontuak ibiltzen baldin baditugu lan tresna bezala, emaitza likidaziyue da. Eta ez aurrekontua. Orduan, 9.1 milioiko gerakina likidazioan, 15 milioiko obligaziyo onartue mediakin, inbertsiotan 11,5 milioi. Nik uste dut azkeneko lau bost urte hauetako gure zuk esaten dezun jarraikor aurrekontu hauek eztiujaztela gaizki eta hori bai dela nire balorazio propioa. Besterik gabe.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko, Unai. Zerbait komentatzeko? Ez?

UNAI LARRAÑAGA: Bai, azkena, hau ez dezala gainera, hortxe apuntatuta nekan. Eta nik hemen bi urte daramatzat batzuk askoz gehiyo damakizute, aurrezki garbitaz ari gera. Bi urtetan eztet jaso proposamen bat aurrezki garbiya hobetzeko zuen aldetikan. Beraz, esaten dena gauza bat da, egiten dena, beste gauzatxo bat, orduan hor ere bakoitzak beria heldu dezala.

IÑAKI OSTOLAZA: Gustura geratuko hitzean. Bueno zerbait komentatzeko? Eztakit, edo Xabier eskua altxatzen dit. Bueno lehendabizi zein zu edo Iker? Edo ez? Bai, bale. Zure hitza.

IKER MARDARAS: Bueno, gauza asko esan dituzu Unai eta behintzat ere bai nere bisioa modu alternatibo batean, ze azken finean horiek bisioak dira. Ni ere uste dut, ez dut uste egiaren jabe garenik batak ez besteok baizik eta, bakoitzak dauka bere modua eta bere perspektiba.

Niretzat aurrekontu bat ez da marmolean zinzelatuta, noski, baina niretzat aurrekontu bat konpromiso bat da. Eta aurrekontuan zeozer jartzen baldin bada da egingarria dalako eta egingo delako. Batzutan jarri daiteke behar dalako ba prozedura bat izateko lizitazio bat izateko, baina badauzkagu hemen hainbat eta hainbat proiektu, komentatu ditugunak urtez urte. Ba, aizu, ez dijoaztela aurrera eta azkenean konpromiso hori non gelditzen da? Ez? Gerakinari buruz, zuk esaten duzu 5,3tik 9,1era igo zaizu. Bueno eta in dituzu gure garaian eta zuen garaian izan diren konparaketa. Guk 1,5 milioiekin jaso genuen Udala eta uste dut meritu gehiago daukala aurrezki, gerakin gabe edo gutxikin bost milioira pasatzea, bostik bederatzia pasatu baino. Eta nik uste dut hori uste dut zala ejekuzio faltagatik gainea.

Asunto hontan, ze guk azken finean 5,3 milioi horiek atera genituen udal honek zeukan gastu maila kontrolatu genuelako. Genituen aurrekontuak ez genituelako exekutatu edo obligazioa guztiz egingo. Ze gero aurrekontutik aurrekontura esaten dezuenez eta guk askotan ere komentatu dugu. Aurreko urteetan koltxoak zeuden, hau da, hemen aurrekontua beti inflauta egon da eta hori eman du azken finean gero gerakin horiek egiteko. Eta horrek zer esan nahi du? Ba herritarrengandik zergak jaso ditugula geldi egoteko. Ordun giroa geldi egoteko ordun hor bi ikuspuntu edo daude, gauza bat da da gerakina sortzea eta esatea koltxoi bat izatea eta beste bat gerakina izatea ejekutatu ez delako egiten. Eta gero zorpetzeari buruz. Bueno ez dakit zer apuntatu dut, baina bueno horretan geldituko naiz, bai. Eskerrik asko.





IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko.

XABIER ODRIOZOLA: Diozu hemen bi urtez zaudela. Ados, ni ere hemen horretan nago. Hogeita bost milioitik, hogeit mila jaitzi da aurrekontua. 24tik bost milioiko jaitziera bat eduki du eta inbertsioetan zortzitik hirura. Bai. Esango didazue arau fiskalak daudela barne eta ulertzen dizut, baina horrek esan nahi zuen 24ko aurrekontuak ez zirela dinamikoa, baizik eta inflauta zeudela. Bai, osea zeuden proiektuak sartuta, orain kendu egin dienak eta horrek preokupatzen dit niri, proiektuek egingo ahal diren edo ez, lehen zuk esan dozu baietz, egingo direla aipatu ditugun proiektu ezberdinak ta neri preokupazio puntua sortzen dit. Bai. Berdintasun hori aipatu duzunean ba orain ez detalako ikusten, baina bueno esan duzuen bezala apirilaren ostean gerakinetik ba ikusiko dugu.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko Xabier. Nik ñabardura bat. Egia da beti ohartzen gaituzula fofinaren gaiarekin, hartzen baldin badugu azkenengo eztaikit 15 urteko fofinaren bilakaera beti doa gorantz. Hiru urtetan ez ezik, hirutan hemen eotia gobernatzen tokatu zait 2012an horreatikan fofina asko jaitzi zelako. Ez jaitzi, baizik eta itzuli, itzultzea tokatu zitzaigulako. Eta etzan garai ekonomiko errazak haiek, bestia pandemiaren ondoren tokatu zitzaigulako eta oraingo hontan eta berak aipatu duelako etzalako prebisiokakin jokatu Aldundia ezberdinen partetik berriro tokatu zaigula bueltatzea edo 300.000 euro gutxitzea. 300.000 euro hoiek kontutan hartuta eta beste puntu batzuk bueno hori zuk esplikatuz baino soilik ñabardura hori.

UNAI LARRAÑAGA: Nik uste dut ya sartzen ai geala bakoitzan balorazioetan eta horregatik eman ditut zenbakiak. Noski, hori egin genezake aurten ere, fofinak hurrengo urtian esan dudana bezala, 9,67 mila euro sartu izan bagiñuzen aurrezki garbia 1,1 milioikoa izango zan adibidez. Orduan hor ere ikusten da zintzotasunez gardentasun guztiz eta benetan aurrekontuak erabiltzen ditugula benetan sartuko danakin. Zuk esan duzun bezala, noski baietz momentu puntualetan aprobetxatu deu koiuntura eta esan deten bezala koiuntura hori aprobetxatzen delako aurrekontuetan edukitzeak esan nahi duelako diru-laguntzak eskatzeko aukera bat eukitzia. Adibidez eta diru-laguntza eskatu da eta barkatuko didazu, baina beste aukera badago eta txertaketak aurrekontuetan beti egin dira. Beti beti beti, hau da, 2015ean 900.000 euro in zian. Hau da, esan nahi detena da arau fiskalak arautu zutenetik gerakinean erabilera, denok erabili deun erreminta bat izan dela, arau fiskalak etenda egon dienien aprobetxatu deu beste gauza batzuetarako eta honi emateko abiadura bat askoz handiago hori ere momentuak aprobetxatzia deitze zako eta koiuntura ekonomikoek aprobetxatzia. Orduan klaro, lehengo urtetikan defizit egoera bateko aurrekontu batzuk aurkeztetik, aurkeztu gera, Oke defizit batera, zuri ere hainbeste gauza nik ere esaten ditut baina zuek ere bai, murrizpenak esan dituzu, aber aurtenguak eta trinkotzen ditugula gastuak. Aurkezpenen garbi eta argi esan det 400.000 eurotik gorako zerbitzu igoera bat euki degula eta bigarren kapitulu aldiz, ehuneko bateko jaitziera eduki deula. Oseake hori kudeatuta dago, ezta hamen libre igotzen dan guztia eta horregaitikan esan deten bezala, pozik nagoela eman deun aurrezki garbiyakin ba esan dudana bezala bai lanketa handia dagoelako atzetiken eta emaitzan aurretikan, emaitza bat nahiko genuke



eta geuk ere ez dugu lagatzen eta horregatikan aurrera begirako iruditzen zaidalako oinariak sendotu egin direla, lehengo urtian genukeena baino oinari sendoagoa dazkagula eta denborak esango digu lker eta hori eta hamen egotea espero det eta esan dudan bezala, 800.000, iye 900.000 euro horiek 1,2 1,3 aurkezteko bate arazoik ezta eon eta 900.000 ekarri ditugu oseake nik uste dut ya nehiko luzatu geala eta hemen lagako det.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko. Eskerrik asko Unai. Bueno interesgarria eztabaida, bozkatzera pasako gea.

**Aldeko botoak: 11 boto (10 EH BILDU; 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 6 boto (6 EAJ-PNV)**

**Abstentzioak: 0 boto**

#### **ERABAKIA:**

2025-eko aurrekontu proiektua onartu da.

IÑAKI OSTOLAZA Zorionak Unai egindako lanagatik.

### **2.6.- 17 HA-KO ARTADI XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**2024KO AZAROAREN 24KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, "ZUMAIAN 17 HA-KO ARTADI XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEKO**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA "LURRALDEA" DE 20 DE NOVIEMBRE DE 2024 PARA LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE DETALLE del AU 17 ARTADI DE ZUMAIA**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2024ko Irailaren 18ko Ohiko Tokiko Gobernu Batzordean Hasierako onespena eman zitzaion Hasierako onespena ematea 17 HA Artadi Xehetasun-azterketari, indarreko araudiaren barruan Zumaia Arau Subsidiarioek Artadi auzoan baimen tzen duen handitzea antolatzeko, 1959 finka erregistratzen baimendu daitekeen eraikuntzaren baldintzak ezarriz.

#### **ANTECEDENTES**

1. Visto que en Junta de Gobierno Local ordinaria de 18 de Septiembre de 2024 se aprobó inicialmente el ESTUDIO DE DETALLE Aprobar inicialmente el Estudio de Detalle del AU 17 Artadi para ordenar, dentro de la normativa vigente, la ampliación permitida por las Normas Subsidiarias de Zumaia en Artadi auzoa, estableciendo las condiciones de la edificación autorizable en la finca registral 1959.



**2.-** Xehetasun-azterketaren proiektua jendaurrean jarri zen, hogeit egunez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen diren egunkarietako batean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz. Era berean, interesdunen eskura egon da Udalaren goitza elektronikoan.

**3.-** Jendaurreko epean, ez da inolako kexarik, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu.

**2.-** El documento del estudio de detalle fue sometido a información pública, durante veinte días, mediante su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en uno de los diarios más vendidos del territorio y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento. Asimismo, ha estado a disposición de los interesados en la sede electrónica del Ayuntamiento.

**3.-** En el período de exposición pública, no se ha presentado queja, reclamación o alegación alguna.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2024ko Azaroaren 20ko Lurraldea Batzorde informatiboak, ondorengo botoekin

Alde:

Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)  
Duñike Agirrezabalaga (PSE)

**Aurka:** 0

**Abstentzia:** 0

ALDEKO iritzia eman du eta honako IRIZPEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

**LEHENA.** Zumaiako 17 HA Artadi Xehetasun-azterketari, indarreko araudiaren barruan Zumaiako Arau Subsidiarioek Artadi auzoan baimen tzen duen handitzea antolatzeko, 1959 finka

### DICTAMEN

En consecuencia la Comisión informativa de "Lurraldea" de fecha 20 de Noviembre de 2024, tras la siguiente votación:

A favor:

Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)  
Duñike Agirrezabalaga (PSE)

**En contra:** 0

**Abstención:** 0

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes, el siguiente DICTAMEN:

**PRIMERO.** Aprobar definitivamente el ESTUDIO DE DETALLE del AU 17 Artadi para ordenar, dentro de la normativa vigente, la ampliación permitida por las Normas Subsidiarias de Zumai en



erregistrarean baimendu daitekeen eraikuntzaren baldintzak ezarriz. BEHIN

Artadi auzoa, estableciendo las condiciones de la edificación

BETIKO ONESPENA EMATEA

autorizable en la finca registral 1959.

**BIGARRENA.** Behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**SEGUNDO.** Publicar el Acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**HIRUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea xehetasun-azterketak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei, eta hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraztea.

**TERCERO.** Notificar el presente Acuerdo a las personas propietarias y demás personas interesadas directamente afectadas por el Estudio de Detalle, así como ponerlo en conocimiento del Órgano Foral competente en materia de Urbanismo.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea akordio hau lortzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.jarriko argitaratzen ez den bitartean.

**CUARTO.** Facultar al Alcalde para la firma de los documentos necesarios para la consecución del presente Acuerdo.

Zumaia, 2023ko azaroaren 20a

[Lurralde batzordearen arduraduna](#)

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Hemen onartu behar duguna edo proposatzen duguna ekartzea da lehendabizi Zumaiaiko Artadi xehetasun azterketa egitea Indarreko araudiaren barruan Zumaiaiko arau subsidiarioak Artadi auzoan baimentzen duen handitzea antolatzeko. 1959 finka registrararioan baimendu daitekeen eraikuntzaren baldintzak ezarriz behin betiko onespena ematea. Behin betiko onespeneren erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki honen berri ematea, xehetasun azterketak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei eta hirigintzaren arloan eskumena duen Foru Organoari jakinaraztea eta baita ere azkenik alkateari ahalmena ematea akordio hau lortzeko behar diren dokumentuak sinatzeko jarri argitaratzen ez den bitartean. Gutxi gorabehera. Hau eztabaida, bueno begiratu dugu lehen ere, da behin betiko ekartzea behin-behineko onartu zana. Aldeko bozka?

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**



## ERABAKIA:

LEHENA. Zumaia 17 HA Artadi Xehetasun- azterketari, indarreko araudiaren barruan Zumaia Arau Subsidiarioek Artadi auzoan baimen tzen duen handitzea antolatzeke, 1959 finka erregistratzen baimendu daitekeen eraikuntzaren baldintzak ezarriz. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.

BIGARRENA. Behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea xehetasun-azterketak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei, eta hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraztea.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea akordio hau lortzeko behar diren dokumentuak sinatzeko jarriko argitaratzen ez den bitartean.

## 2.7.- 03HA ODIETA-SAN JOSE-N XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

**2024KO AZAROAREN 24KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, "ZUMAIAN 03HA ODIETA-SAN JOSE-N XEHETASUN-AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEKO**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA "LURRALDEA" DE 20 DE NOVIEMBRE DE 2024 PARA LA APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE 03HA ODIETA-SAN JOSE,**

### AURREKARIAK

1.- 2024ko Irailaren 18ko Ohiko Tokiko Gobernu Batzordean Hasierako onspena eman zitzaion 03HA ODIETA-SAN JOSEKO XEHETASUN AZTERKETARI, indarreko araudiaren barruan baimendutako gehieneko hirigintza parametroak malgutzekoa dena, Zumaia San Juan Egoitza Eraberritu eta Handitzeko Proiektua osatuko duten bolumen berriak antolatzeke helburuarekin.

2.- Xehetasun-azterketaren proiektua jendaurrean jarri zen, hogeit egunez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen diren egunkarietako batean eta udaletxeke iragarki-oholean argitaratuz. Era berean, interesdunen eskura egon da

### ANTECEDENTES

Visto que en Junta de Gobierno Local ordinaria de 18 de Septiembre de 2024 se aprobó inicialmente el ESTUDIO DE DETALLE el Estudio de Detalle 03HA Odieta-San Jose, de flexibilización de los parámetros urbanísticos máximos permitidos dentro de la normativa vigente, con el objeto de ordenar los nuevos volúmenes que conformarán el Proyecto de Reforma y Ampliación de la Residencia San Juan de Zumaia

2.- El documento del estudio de detalle fue sometido a información pública, durante veinte días, mediante su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en uno de los diarios más vendidos del territorio y en el tablón de anuncios del



Udalaren egoitza elektronikoan.

Ayuntamiento. Asimismo, ha estado a disposición de los interesados en la sede electrónica del Ayuntamiento.

**3.-** Jendurreko epean, ez da inolako kexarik, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu.

**3.-** En el período de exposición pública, no se ha presentado queja, reclamación o alegación alguna.

### IRIZPENA

### DICTAMEN

Ondorioz, 2024ko Azaroaren 20ko Lurraldea Batzorde informatiboak, ondorengo botoekin

En consecuencia la Comisión informativa de "Lurraldea" de fecha 20 de Noviembre de 2024, tras la siguiente votación:

Alde:

A favor:

Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)  
Duñike Agirrezabalaga (PSE)

Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)  
Duñike Agirrezabalaga (PSE)

**Aurka:** 0

**En contra:** 0

**Abstentzia:** 0

**Abstención:** 0

ALDEKO iritzia eman du eta honako IRIZPEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes, el siguiente DICTAMEN:

**LEHENA.** Zumaiaiko 03HA ODIETA-SAN JOSEKO XEHETASUN AZTERKETARI behin betiko onarpena ematea, indarreko araudiaren barruan baimendutako gehieneko hirigintza parametroak malgutzekoa dena, Zumaiaiko San Juan Egoitza Eraberitu eta Handitzeko Proiektua osatuko duten bolumen berriak antolatzeko helburuarekin.

**PRIMERO.** Aprobar definitivamente el ESTUDIO DE DETALLE 03HA Odieta-San Jose, de flexibilización de los parámetros urbanísticos máximos permitidos dentro de la normativa vigente, con el objeto de ordenar los nuevos volúmenes que conformarán el Proyecto de Reforma y Ampliación de la Residencia San Juan de Zumaia.

**BIGARRENA.** Behin betiko onepnaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**SEGUNDO.** Publicar el Acuerdo de aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



**HIRUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea xehetasun-azterketak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei, eta hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraztea.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea akordio hau lortzeko behar diren dokumentuak sinatzeko jarriko argitaratzen ez den bitartean.

**TERCERO.** Notificar el presente Acuerdo a las personas propietarias y demás personas interesadas directamente afectadas por el Estudio de Detalle, así como ponerlo en conocimiento del Órgano Foral competente en materia de Urbanismo.

**CUARTO.** Facultar al Alcalde para la firma de los documentos necesarios para la consecución del presente Acuerdo.

Zumaia, 2023ko azaroaren 20a  
Argi Yeregui Egaña

Lurralde batzordearen arduraduna

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Hemen ere, behin behineko onarpena eman genion eta epealdia pasa ta gero ba behin betiko onarpena ekartzea. Planteatzen duguna da lehendabizikoz, Zumaiako 03HA Odieta San Jose xehetasun azterketari behin betiko onarpena ematea, indarreko araudiaren barruan baimendutako gehieneko hirigintza parametroak malgutzekoa dena. Zumaiako San Juan egoitza eraberritu eta handitzeko proiektua osatuko duen bolumen berriak antolatzen helburuarekin. Bigarrenik, behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako aldizkariara eramatea, erabaki honen berri ematea xehetasun azterketa horrek zuzenean eragiten dien jabe guztiei eta alkateari ahalmena ematea hau sinatu ahal izateko.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

**LEHENA.** Zumaiako 03HA ODIETA-SAN JOSEKO XEHETASUN AZTERKETARI behin betiko onarpena ematea, indarreko araudiaren barruan baimendutako gehieneko hirigintza parametroak malgutzekoa dena, Zumaiako San Juan Egoitza Eraberritu eta Handitzeko Proiektua osatuko duten bolumen berriak antolatzen helburuarekin.

**BIGARRENA.** Behin betiko onespeneren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



**HIRUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea xehetasun-azterketak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei, eta hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraztea.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea akordio hau lortzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.jarriko argitaratzen ez den bitartean.

**2.8, ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEKO OBRA KONTRATUAN AZKEN OBRA ZIURTAGIRIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**LURRALDE ANTOLAMENDUAREN  
BATZORDEAREN IRIZPENA, 2024KO  
AZAROAREN 20KOA, ZUMAIAKO  
KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA  
BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA  
EXEKUTATZEKO OBRA KONTRATUAN AZKEN  
OBRA ZIURTAGIRIA ONARTZEKO**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA  
DE ORDENACION DEL TERRITORIO DE 20 DE  
NOVIEMBRE DE 2024 PARA LA APROBACIÓN  
DE LA CERTIFICACIÓN FINAL DEL CONTRATO  
DE OBRAS DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN  
PARA LA REHABILITACIÓN DEL CONVENTO  
DE CARMELITAS DESCALZAS DE ZUMAIA**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** Ikusita 2022ko azaroaren 4ean sinatutako obra kontratua, batetik Maria Uria Aramendik ALTURA Y URÍA, S.Aren izenean eta bestetik, Iñaki Ostolaza Esnal, Zumaiako Udalako alkatea eta ordezkaria.

**BIGARRENA.** Ikusita onartu nahi den azken obra ziurtagiriari dagokion obra kontratuaren ezaugarriak:

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.** Visto el contrato de obras del 4 de noviembre del 2022, firmado por Maria Uría Aramendi, en nombre de ALTUNA Y URÍA, S.A., y Iñaki Ostolaza Esnal, como alcalde y representante del Ayuntamiento de Zumaiá.

**SEGUNDO.** Visto los datos del contrato de obras cuya certificación final se pretende aprobar:

Kontratu-mota: OBRA-KONTRATUA	Tipo de contrato: CONTRATO DE OBRAS
Kontratuaren xedea: ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO EGIKARITZE-PROIEKTUA EXEKUTATZEA Objeto del contrato: EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REHABILITACIÓN DEL CONVENTO DE CARMELITAS DESCALZAS DE ZUMAIA	
Kontratista/contratista: ALTUNA Y URÍA S.A.	
Behin betiko bermea / Garantía definitiva: 210.127,88 €	
Kontratuaren prezioa / Precio del contrato: 4.202.557,56 + 882.537,09(BEZ/IVA)= 5.085.094,65 €	
Formalizazio data: 2022/11/04 Fecha de formalización: 04/11/2022	
Gauzatze-epauren hasiera data: 2022/11/09	





Fecha de inicio de ejecución: 09/11/2022	
1go aldaketaren formalizazio data: 2023-06-7 Fecha de formalización de la 1ª modificación: 07-06-2023	
Aldaketaren zenbatekoa: 327.799,57 euro (% 21 barne) Importe de la modificación: 327.799,57 euros (IVA del 21% incluido)	
Lehenengo aldaketak dakarren prezioaren igoera: adjudikazio prezioaren % 6,45. Incremento del precio que supone la 1ª modificación: 6,45% del precio de adjudicación	
Kontratuaren prezioa (1go aldaketa ondoren) Precio del contrato (tras la 1ª modificación)	4.473.466,29 + 939.427,92 (BEZ/IVA) = 5.412.894,21€
Gehieneko iraupena / Duración máxima: 20 HILABETE / 20 MESES	
Behin betiko bermearen egokitzapena: 13.545,44 euro Reajuste de garantía definitiva: 13.545,44 euros	
Aurreikusitako amaiera data: 2024/07/09 Fecha de finalización prevista: 09/07/2024	
2go aldaketaren formalizazio data: 2024-03-27 Fecha de formalización de la 2ª modificación: 27-03-2024	
2go aldaketaren zenbatekoa: 773.294,65 euro (% 21 barne) Importe de la 2ª modificación: 773.294,65 euros (IVA del 21% incluido)	
2go aldaketak dakarren prezioaren igoera: adjudikazio prezioaren % 15,21. Incremento del precio que supone la 2ª modificación: 15,21% del precio de adjudicación.	
Aldaketek guztira dakarten prezioaren igoera: adjudikazio prezioaren % 21,65 Incremento del precio que suponen las modificaciones en total: 21,65% del precio de adjudicación.	
Kontratuaren prezioa (2go aldaketa ondoren) Precio del contrato (tras la 2ª modificación)	6.186.188,85 (BEZ barne/IVA incluido)
Exekuzio epearen luzapena: 7 ASTE Ampliación del plazo de ejecución: 7 SEMANAS	
Behin betiko bermearen egokitzapena: 31.954,32 euro Reajuste de garantía definitiva: 31.954,32 euros	
Aurreikusitako amaiera data : 2024/08/28 Fecha de finalización prevista: 28/08/2024	

**HIRUGARRENA.** Ikusita zuinketa aktaren sinadura, eta ondorioz, ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO obra lanen hasiera 2022ko azaroaren 9an egin zela.

**LAUGARRENA.** Ikusita obra zuzendaritzak obra amaiera ziurtagiria aurkeztu zuela 2024ko abuztuaren 28an, obra lanak amaituta.

**BOSTGARRENA.** Ikusita obraren

**TERCERO.** Visto que la firma del acta de replanteo, y por tanto, el comienzo de las obras para la REHABILITACIÓN DEL CONVENTO DE CARMELITAS DESCALZAS DE ZUMAIA se efectuó el 9 de noviembre del 2022.

**CUARTO.** Visto que la Dirección Facultativa de las obras presento el certificado final de obras el 28 de agosto del 2024 dando por finalizada su ejecución.

**QUINTO.** Visto que el acta de



behin betiko harrera akta 2024ko irailaren 27an sinatu zutela parte hartu zuten agente guztiek.

**SEIGARRENA.** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 243. artikulua ikusita, ezartzen duena hiru hilabeteko epean, jasotzen denetik zenbatzen hasita, kontratazio-organoak egindako obren azken ziurtagiria onartu beharko duela, eta lege honetan aurreikusitako epean ordainduko zaiola kontratistari, kontratuaren likidazioaren kontura.

### LEGEDI APLIKAGARRIA

Legedi aplikagarria honako hau izango da:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, 243. artikuluan eta Bigarren eta Hirugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa.
- Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 163tik 166ra bitarteko artikulua.

Erantsita doakion dokumentazioa aztertuta eta azaldutakoa ikusita, espedienteak Legediak ezarritako izapideei jarraitu diela irizten da; bestalde, espedientea onartzea Osoko bilkurari dagokio Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

recepción definitiva de las obras se firmó por todas las partes intervinientes el 27 de septiembre del 2024.

**SEXTO.** Visto el artículo 243 de Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, en el que se establece que dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en esta Ley.

### LEGISLACIÓN APLICABLE

La Legislación aplicable al asunto es la siguiente:

- El artículo 243 y las Disposiciones adicionales segunda y tercera de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.
- Los artículos 163 a 166 del Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Visto cuanto antecede y examinada la documentación que la acompaña se considera que el expediente ha seguido la tramitación establecida en la Legislación aplicable procediendo su aprobación por el Pleno de la Corporación de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.



## IRIZPENA

Ondorioz, Lurraldearen Antolamendurako Informazio Batzordeak, 2024ko azaroaren 20an, bozketa honen ondoren:

### Alde:

Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)

Duñike Agirrezabalaga (PSE)

**Aurka:** 0

**Abstentzia:** 0

Irizpen hau ONARTZEA erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 135.3 artikuluekin bat etorritz, eta, hala badagokio, Udalbatzaren Osoko Bilkurari aurkeztea, honek bertaratutako kideen gehiengo sinplearen quorumarekin hartu beharko baitu erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. **PROPOSAMENA:**

**LEHENENGOA.** ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSEN KOMENTUA BIRGAITZEKO obren azken ziurtagiria onartzea, obra-zuzendariak 2024ko azaroaren 14n sinatua, 6.186.188,79 eurokoa (BEZa barne).

**BIGARRENA.** Obra-amaierako ziurtagirian jasotako 62.738,86 euroko zenbatekoa onartzea, xedatzea eta aitortzea kontratistaren alde.

**HIRUGARRENA.** Obraren azken ziurtagirian jasotako 62.738,86 euroko zenbatekoa kontratistari ordaintzeko agintzea.

## DICTAMEN

En consecuencia la Comisión informativa de Ordenación del Territorio de fecha 20 de noviembre de 2024, tras la siguiente votación:

### A favor:

Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)

Duñike Agirrezabalaga (PSE)

**En contra:** 0

**Abstención:** 0

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo, si procede, a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes de conformidad con lo establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente **PROPUESTA:**

**PRIMERO.** Aprobar la certificación final de las obras de la REHABILITACIÓN DEL CONVENTO DE CARMELITAS DESCALZAS DE ZUMAIA suscrita por el Director de obra con fecha 14 de noviembre de 2024 y por importe de 6.186.188,79 euros (IVA incluido).

**SEGUNDO.** Aprobar, disponer y reconocer la cantidad de 62.738,86 euros contenida en la certificación final de obra a favor del contratista.

**TERCERO.** Ordenar el pago de la cantidad de 62.738,86 euros contenida en la certificación final de obra a favor del contratista.



**LAUGARRENA.** Ebazpen honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Diruzaintzari, ordainketa-agindu honi dagozkion kontabilitate-idatzoharrak egiteko eta agindutako ordainketa egin dadin.

**CUARTO.** Dar cuenta de la presente Resolución a Intervención y a Tesorería, a los efectos de practicar las anotaciones contables correspondientes a la presente ordenación de pagos y a fin de que se haga efectivo el pago ordenado.

**BOSGARRENA.** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

**QUINTO.** Notificar el presente acuerdo a los interesados.

Zumaia, 2024ko azaroaren 20a

### Lurralde Antolamenduaren batzordeko batzordeburua

Argi Yeregl Egaña

**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:** Hemen daukazute zein izan zen lehendabiziko aurrekontua, gero ze gehiketak eon diran inkorporazioak eta azken finean hemen erabakitzen dena da lehendabizikoz, proposamena behintzat hala da, Zumaia Karmeldar oinutsen konbentua birgaitzeko obraren azken ziurtagiria onartzea. Obra zuzendariak 2024ko azaroaren 14an sinatua. 6.186.188,79 eurokoa BEZa barne. Bigarrenik, obra amaierako ziurtagirian jasotako 62.738,86 euroko zenbatekoa onartzea, xedatzea eta aitortzea kontratistaren alde. Hirugarren obraren azken ziurtagirian jasotako kopuru hori zenbatekoa kontratistari ordaintzeko agintzea. Laugarrenik, ebazpen honen berri ematea kontuhartzaileari eta diruzainari, ordainketa agindu honi dagozkion kontabilitate idatzoharrak indatzoorrak egiteko eta agindutako ordainketa egin dadin. Eta erabakia interesdunei jakinarazi. Besterik gabe. Adeko bozkak?

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

#### ERABAKIA:

**LEHENENGOA.** ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSEN KOMENTUA BIRGAITZEKO obraren azken ziurtagiria onartzea, obra-zuzendariak 2024ko azaroaren 14n sinatua, 6.186.188,79 eurokoa (BEZa barne).

**BIGARRENA.** Obra-amaierako ziurtagirian jasotako 62.738,86 euroko zenbatekoa onartzea, xedatzea eta aitortzea kontratistaren alde.

**HIRUGARRENA.** Obraren azken ziurtagirian jasotako 62.738,86 euroko zenbatekoa kontratistari ordaintzeko agintzea.



**LAUGARRENA.** Ebazpen honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Diruzaintzari, ordainketa-agindu honi dagozkion kontabilitate-idatzoharrak egiteko eta agindutako ordainketa egin dadin.

**BOSGARRENA.** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea

### **3.-PROPOSAMENA**

#### **3.1.- ZUMAIAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN HURRENKERA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

IÑAKI OSTOLAZA: Proposamen bezala ekarri dugu eta lehendabizi bozkatuko dugu ea onartzen dugun eztabaidatzea edo bozkatzea proposamen bezala.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Beraz proposamena landuko da.











egindako proposamenaren arabera.

contratación, aprobar la clasificación de ofertas propuesta por la mesa de contratación.

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoarekin bat etorruta, behean sinatzen duenak honako ERABAKI-proposamen hau igortzen du:

Por cuanto antecede, y de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, el que suscribe eleva la siguiente propuesta de ACUERDO:

### ERABAKI PROPOSAMENA

### PROPUESTA DE ACUERDO

**LEHENA.-** Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran:

**PRIMERO.** Aprobar la clasificación de las proposiciones presentadas por los/as licitadores/as, atendiendo la propuesta llevada a cabo por la Mesa de Contratación, de conformidad con el siguiente orden decreciente:

1. EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS S.A.: 90,50 puntu
2. OSVENTOS INNOVACIÓN EN SERVICIOS S.L.: 69,75 puntu

1. EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS S.A.: 90,50 puntos
2. OSVENTOS INNOVACIÓN EN SERVICIOS S.L.: 69,75 puntos

**BIGARRENA.** Zerbitzu eskudunek eskaria egitea EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS S.A. lizitatzailari, eskaintza hoberena aurkeztu duenari, hamar laneguneko epean Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikulua arabera; eta behin betiko bermea eratu duela ere erakutsi beharko du.

**SEGUNDO.** Que los servicios competentes requieran a EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS S.A., licitadora que ha presentado la mejor oferta, para que, dentro del plazo de diez días hábiles, presente la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos a que hace referencia el artículo 140.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, así como de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente.

Era berean, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 300.000 €-ko gutxienezko estaldura duena, zuzenean instalazioek sor ditzaketan istripu, kalte eta galerak edota zerbitzua ematean egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak

Del mismo modo, deberá aportar copia de la póliza y justificante pago de la prima de la contratación de una póliza de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 300.000,00 € de todos los accidentes, daños y perjuicios que puedan ocurrir, ocasionados directamente por las instalaciones o por



**Zumaiako Udala**

estaltzeko.

2024IKIE0005

los trabajos que se realicen como consecuencia de la prestación del servicio.

**HIRUGARRENA.-** Kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitatzailleak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta Idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

**TERCERO.-** Delegar en el Alcalde la competencia para la adjudicación del contrato, una vez que la licitadora propuesta presente la documentación preceptiva y se emita Informe-propuesta por Secretaría.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA  
[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) • e-mail: [udala@zumaia.eus](mailto:udala@zumaia.eus)

ESKU9d64e05d-a798-4f28-bdea-ce599c43df1e

EKS | CSV: **ESKU5f0c8101-61d7-4ee7-b798-191ce88636fb**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>



# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2024IKIE0005-Erabaki proposamena hurrenkera/Propuesta de acuerdo.

Digitalki sinatua:



Zumaiko Udala

Alex Marañon Muñoz

Idazkaria

Data: 2024/11/22 09:48:32



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Azken finean ikusten da hemen ikusita Gizarte Zerbitzuetako Sailak egin duen memoria Zumaiako udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzekeo beharra adierazten duena. Adjudikatu nahi den kontratuaren ezaugarriak ikusita, hor dakazue, ba bueno, ze prezio aurkeztu ziren lizitazioan. Gero, prezio horietan, lehen eztabaidan aipatu dugun bezala, gehienez 18.000 euro emango dira. Eta bakoitzak, urte bakoitza dagokion prezioan. Horrek, aurrekontuak, izan beharko dia 598 lehenbiziko urtian, 637 bigarrengoan eta hirugarrengoan 676. Hori dena da 2.207.088 euroko balio estimatua urte guzti hauetan. Eta orduan gaur proposatzen dena da, lehena lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikira ondorengo hurrenkeran. Lehendabizi, Eulen Servicios sanitarios, Sociedad anónima 90,41 punto. Bigarrenik, Os bentos, innovación en servicios, sociedad limitada 69,75 punto. Bigarrenik, zerbitzu eskudunak eskaria egitea Eulen Servicios sociosanitarios S.A. lizitatzailleari eskaintza hoberena aurkeztu duenari, 10 laneguneko epean, Sektore Publikoko kontratuen arabera baldintzak betetzen dituela justifikatzen duen agiriak aurkez ditzan. Era berean, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 300.000 euroko gutxieneko estaldura duena. Eta hirugarrenik, kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea proposatutako lizitatzaille nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta idazkaritzak proposamen txostena egin ondoren sinatzeko. Hala da, ez Alex?. Bale, zerbait baldin badago komentatzeko, bestela bozkatu egingo dugu. Aldeko bozka?

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

#### **ERABAKIA:**

LEHENA.- Lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak sailkatzea, kontratazio mahaiak egindako proposamenaren arabera eta handitik txikirako ondorengo hurrenkeran:

EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS S.A.: 90,50 puntu

OSVENTOS INNOVACIÓN EN SERVICIOS S.L.: 69,75 puntu

BIGARRENA. Zerbitzu eskudunek eskaria egitea EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS S.A. lizitatzailleari, eskaintza hoberena aurkeztu duenari, hamar laneguneko epean Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 140.1 artikuluan aipatzen dituen aurretiazko baldintzak betetzen dituela justifikatzen duten agiriak aurkez ditzan; horrez gain, kontratua gauzatzeko gorde edo atxiki beharreko bitartekoak egiaz eskura dituela erakutsi beharko du agiri bidez, 76.2 artikuluaaren arabera; eta behin betiko bermea eratu duela ere



erakutsi beharko du.

Era berean, polizaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta erantzukizun zibileko poliza baten kontratazioaren primaren ordainagiria ere, 300.000 €-ko gutxieneko estaldura duena, zuzenean instalazioek sor ditzaketen istripu, kalte eta galerak edota zerbitzua ematean egiten diren lanen ondorioz sor daitezkeenak estaltzeko.

HIRUGARRENA.- Kontratua adjudikatzeko eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitatzailleak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta Idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

#### 4.- MOZIOA

##### 4.1.- 2024KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ATARIAN, ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA, OLATU BERRIA SORTZEKO.

IÑAKI OSTOLAZA: Mozioa printzipioz aurkeztu dugu EH Bilduko taldeak eta EAJ-ko taldeak eta Aitorrek irakurriko digu mozioa. Zure hitza.

AITOR MANTEROLA GARATE: Eskerrik asko.

ERANTZUKIZUNA      ETA      KONPROMISOA,      OLATU      BERRIA      SORTZEKO

Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak gabela. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta gunek ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula.

Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun errealitatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatiboz bizi daitekeen gunetan. Gainera, gunehoriek ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi nahi dugu.



Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnasmuneez eta udalerri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatzeko eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere.

IÑAKI OSTOLAZA: Eskerrik asko, Aitor. Esan, komentatu, Xabier.

XABIER ODRIOZOLA: Bueno, hasteko bueno, ikuspegi positiboa eta ilusiozkoa ere adierazi nahi dugu eta esan beharra dago euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan duela azken hamarkadetan. Azken inkesta soziolinguistikako datuei erreparatuz, EAE-ko 16 urtetik gorako gazteen artean 94,5 euskaldunak dira. Duela 30 urte baino 49,5 puntu gehiago izanik. Euskaldunen 100ekoa 12 puntu igo da azken 30 urteetan. Bai, gutxi gorabehera 260.000 pertsona bat. Euskararen erabilerak gora egin du herritarren ehuneko 21 euskararen gaztelania adina edo gehiago erabiltzen baitu. Honek esan nahi du euskarak pausoak edo jauziak sendoak aspaldi ari dela ematen gizartearen zein erakundearen aldetik, baina honek guztiak ez du esan nahi egoera goxo eta lasai batean geratu dala. Bereziki ikusita epaitegiak euskararen aurkako neurriak gero eta gogorragoak jartzen eta jarraitzen ari baitira. Bestalde, Zumaian, haurren eta gazteen euskararen erabileraren inguruan egindako ikerketatik ateratako ondorioa. Euskaraz asko, baina kontutan hartu beharko nabardura ere badaudela adierazi dute. Beraz, azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan gara eta EAJ-PNV-ko taldetik aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi indarra izango dugu olatu berriak sortzeko.

IÑAKI OSTOLAZA: Zerbait komentatzeko. Bueno, nik ere aber. Baikorra, baikorra izateko, ba eztaikit. Alde batetik egia da jakintzaren maila asko igo dela azkenengo urte hauetan. Erabilera ba bueno. Ez, ez, jakintzarekin batea ezta jun eta horrek kezkatu behar gaituela eta nei gehienbat kezkatzen dit. Ba bueno gure seme-alabak eta ez hainbeste orain dala 10 urte gazteen arteko eta nerabeen arteko erabilera gaur egunean dagoen erabilera baino handiago zala. Hor atzerakada bat euki dugu orokorrean. Nik uste dut hizkuntza gutxitu guztiei gertatu zaiela. Euskal Herrian ere eta Zumaian ere bai. Eta jaitiera horrek kezkatzen nau eta nik uste dut kezkatu beharko gintuzkela denoi. Azken finean hor bai kokatzen detela ikus-entzunezko erabilera, geo ta erdera gehio sartuta dago eta geo ta produktu gutxio dao euskara hutsean. Nik, hemendikan bai, dei bat egin nahiko nukeena instituzio ezberdinei ikus-entzunezko produkzioan, euskararen produkzioan, bultzada bat eta behingoz inbersio tinko eta potente



bat egite aldera. Eta gero ba bueno baita ere guk ere hemendikan egin ditzazkegun lanketa guztiyak erabilera hori soilikan jakitean geratzea, baizik eta eskolatik ateratzen diren haurrak ere beraien artean euskara izan dadin eguneroko hizkuntza eta hor bai atzerapausoa eman dugula orokorrean eta baita ere Zumaiian. Hori ere aitortu behar da. Beraz, besterik gabe bozkatuko dugu mozioa.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU; 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

UEMA-ren mozioa onartzen da.



**5.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.**

**5.1.- UDALAREN 18., 19., ETA 20. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.**

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0900.227.920.01.92 2024	E-MAILA BUZOIAK HODEIAN	2.600,00	2.600,00	0,00
1 1300.221.342.01.03 2024	GASA KIROLDEGIA	120.000,00	8.500,00	111.500,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>122.600,00</b>	<b>11.100,00</b>	<b>111.500,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0900.626.920.01.02 2024	UDALETXEKO ZENTRALITA ALDAKETA	10.000,00	2.600,00	12.600,00
1 1300.629.342.01.02 2024	BOXEO RING RETRAKTILA	0,00	8.500,00	8.500,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.000,00</b>	<b>11.100,00</b>	<b>21.100,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,

Alkatea





**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.210.160.00.01 2024	AZPIEGITURAREN MANTENIMENDUA-EURI URAK	1.502,00	250,00	1.752,00
1 0100.210.153.21.01 2024	BIDE PUBLIKOEN MANTENIMENDUA	7.000,00	10.000,00	17.000,00
1 0100.214.153.30.01 2024	HIRI ALTZARIEN MANTENIMENDUA	1.000,00	6.000,00	7.000,00
1 0100.211.333.00.01 2024	KONPONKETAK ALONDEGIA	3.000,00	3.000,00	6.000,00
1 0400.213.132.01.01 2024	KOTXEAREN MANTENIMENDUA	2.000,00	1.200,00	3.200,00
1 0300.202.333.10.01 2024	AITA MARI ZINEMAKO PROIEKTOREAREN ALOKAI	0,00	4.650,00	4.650,00
1 0200.227.323.00.99 2024	HERRI ESKOLAKO KOMUNIKAZIO KANPAINA	0,00	5.170,00	5.170,00
1 0400.227.133.10.99 2024	ONTZIA LEKUALDATZEA+DESEGITEA	0,00	3.610,64	3.610,64
<b>GUZTIRA</b>		14.502,00	33.880,64	48.382,64

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2024	DIRUZAINZTA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	33.880,64
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>33.880,64</b>



KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,

Alkatea

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0400.227.133.10.99 2024	ONTZIA LEKUALDATZEA+DESEGITEA	3.610,64	600,00	4.210,64
<b>GUZTIRA</b>		3.610,64	600,00	4.210,64

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2024	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	600,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>600,00</b>



KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,

Alkatea

IÑAKI OSTOLAZA: Azken finean eiten dana da murrizketa bat partida batzuetan, adibidez, kiroldegian da eta bueno ba beste gastu batzutan, alde batetik Udaltzeko zentralita aldatzen da, beharrezkoa zelako ta horretarako zeon diru partidatikan gehikuntza bat egiten zaio eta 8500 euro bideratzen da boxeoko taldeari" ring retrácti"l bat erosteko.

19. kreditu aldaketa. 33.880,64 hau gerakinetikan ateratzen da eta partida batzuk sartzen dira azpiegiturak, mantenimientoa, euri urak, 250, bide publikoen mantenua 10.000, hiri altzarien mantenuan 6000, konponketa lantegian 3000, kotxearen mantenimendua 1200, Aita Mari zineko proyektorien alokairua 4650, Herri eskolako komunikazio-kanpaina 500170 eta ontzia lekualdatzea, gehi desegitea, 3610,64. Partida hau gaur erabili da zeatikan gaur heldu da ontzi hori. Tanatorio azpiyan daon ontzi hori erretiratzekua da. Bazan ordua eta kendu du.

20. kreditu aldaketa. Kasu hontan dia, seirehun eurokoak eta gehitu beste partida horretara. Tanatorio aurrean kendu dan ontzi hori.

5.2.- 2024KO 3.HIRUHILEKO OBBE-AREN BERRI EMATEA.

ORDAINKETEN BATEZ BESTEKO EPEA (OBBE)						
Toki entitatea: ZUMAIA						
Ekitaldia: 2024						
Hiruhilekoa: Hiruhilabetea 3						
Entitatea	Ordaindutako eragiketak		Ordaindu gabeko eragiketak		OBBE	Oharrak
	Ratioa	Zenbatekoa	Ratioa	Zenbatekoa		
81 ZUMAIA	7,35	2.483.271,72	6,96	169.396,53	7,32	
OBBE globala	7,35	2.483.271,72	6,96	169.396,53	7,32	

Alkateak 3. Hiruhileko OBBE-aren berri eman du.



## 5.3.- 2024KO 3.HIRUHILEKO -AREN BERRI EMATEA.

ZUMAIAKO 2024ko UDAL AURREKONTUKO GASTUAREN 3. HIRUHILEKO EXEKUZIOA						
KAPITULOA	AURREKONTUA	BAIMENDUA	ERABILIA	OBLIGAZIOAK	%	ORDAINKETAK
1.- PERTSONALA	5.786.477,41	4.093.309,24	4.093.309,24	4.061.609,24	70,19%	4.058.339,91
2.- EROSKETAK	9.272.207,81	6.266.054,82	6.266.054,82	4.973.360,36	53,64%	4.398.840,28
3.- FINANTZA GASTUAK	3.700,00	586,13	586,13	586,13	15,84%	1.764,54
4.- DIRULAG.ARRUNTAK	1.894.525,22	1.437.183,81	1.343.384,27	1.233.095,32	65,09%	1.025.209,46
5.- KREDITU GLOBALA	26.452,43	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00
<b>GASTU ARRUNTA</b>	<b>16.983.362,87</b>	<b>11.797.134,00</b>	<b>11.703.334,46</b>	<b>10.268.651,05</b>	<b>60,46%</b>	<b>9.484.154,19</b>
6.- INBERTSIOAK	7.885.265,78	5.278.482,45	4.928.482,45	3.535.664,60	44,84%	3.522.172,39
7.- KAPITAL TRANSFER	228.281,42	228.281,42	228.281,42	0,00	0,00%	0,00
8.- FINANTZ AKTIBOAK	5.000,00	1.803,04	1.803,04	1.803,04	36,06%	1.803,04
9.- FINANTZ PASIBOAK	56.024,28	37.349,52	37.349,52	37.349,52	66,67%	37.349,52
<b>KAPITAL GASTUA</b>	<b>8.174.571,48</b>	<b>5.545.916,43</b>	<b>5.195.916,43</b>	<b>3.574.817,16</b>	<b>43,73%</b>	<b>3.561.324,95</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>25.157.934,35</b>	<b>17.343.050,43</b>	<b>16.899.250,89</b>	<b>13.843.468,21</b>	<b>55,03%</b>	<b>13.045.479,14</b>

  

ZUMAIAKO 2024ko UDAL AURREKONTUKO DIRU-SARREREN 3.HIRUHILEKO EXEKUZIOA								
KAPITULOA	B. betiko aurrek.	ESKUBIDE ONARTU GARBIAK		BILKETA LIKIDOA		KOBRAZTEKO		Itzulketak
		Eskubide onartu garbiak	%	Bilketa likidoa	%	Kobratzeko	%	
1.- ZUZENEKO ZERGAK	3.479.077,95	3.114.720,86	89,53%	2.732.854,73	87,74%	381.866,13	12,26%	154.626,63
2.- ZEHARKAKO ZERGA	412.902,01	715.506,01	173,29%	693.264,74	96,89%	22.241,27	3,11%	80,00
3.- TASAK ETA BESTEL	3.427.808,85	2.654.553,99	77,44%	2.225.558,07	83,84%	428.995,92	16,16%	16.575,68
4.- TRANSFERENTZI AR	10.057.152,99	9.525.781,21	94,72%	7.208.828,00	75,68%	2.316.953,21	24,32%	0,00
5.- ONDARE SARRERA	124.943,98	92.007,53	73,64%	70.633,23	76,77%	21.374,30	23,23%	0,00
<b>ARRERA ARRUNTA</b>	<b>17.501.885,78</b>	<b>16.102.569,60</b>	<b>92,00%</b>	<b>12.931.138,77</b>	<b>80,30%</b>	<b>3.171.430,83</b>	<b>19,70%</b>	<b>171.282,31</b>
6.- INBERTSIO ERREAL	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
7.- KAPITAL TRANSFER	438.577,54	469.374,61	107,02%	-6.924,39	-1,48%	476.299,00	101,48%	6.924,39
8.- FINANTZA AKTIBOAK	321.954,53	9.160,39	2,85%	6.530,91	0,00%	2.629,48	0,00%	0,00
9.- FINANTZA PASIBOAK	6.895.516,50	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00
<b>KAPITAL SARRERA</b>	<b>7.656.048,57</b>	<b>478.535,00</b>	<b>6,25%</b>	<b>-393,48</b>	<b>-0,08%</b>	<b>478.928,48</b>	<b>100,08%</b>	<b>6.924,39</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>25.157.934,35</b>	<b>16.581.104,60</b>	<b>65,91%</b>	<b>12.930.745,29</b>	<b>77,98%</b>	<b>3.650.359,31</b>	<b>22,02%</b>	<b>178.206,70</b>

Alkateak 3. Hiruhileko exekuzioaren berri eman du.

## 5.4.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkateak alkate ebazpenen berri eman du.

6.- ESKARI – GALDERAK

IÑAKI OSTOLAZA: Zerbait komentatzeko badaukazute? Bai, Xabier.

XABIER ODRIOZOLA: Nik lehen esan duzun bezela. Ikusita eduki dugun plenoik luzeena ta bueno ba interesantiena izango da ba página web. Ahal baldin bada ba 2024ko aurrekontuak igo, 24ak ez daude, nire ustez ez daude eta 25ekoak ere ba herritarrek salseatu, landu edo ikusi nahi badituzte igotzeko eskaera.

IÑAKI OSTOLAZA: Oso ondo. Zerbait gehio?

Bai, nik bukatzeko. Nik labor-labor bera nahi det komentatu ba bueno Astilleros Valenciagan gaia. Osoko bilkura aurretik eduki dugu bozeramaileekin bilera bat azaldu diet udalak kaso hontan Gobernuak emandako pausoak enteratu ginenean, ba bueno ba, konkurtsoa sartu sala Astilleros Valenciaga. Lehendabiziko gauza ipini nintzen ba harremanetan bai gerentearekin, Vicente



**Zumaiako Udala**

2024IAKU0013

Galdeanokin, azaldu zidan zein zen egoera Eduki nun bilera, Komitekoekin eta beraien ere bere ikuspuntua zein zan. Eta bueno ba bai eskatu ziguten ba bueno udala izan dadin parte aktibo bat zea horretan, konponbide bat bilatzean. Komentatu nion emandako pausoak eta bueno ba gero bilera horien ondoren, gaur eduki degu, beste bilera bat. Zearekin, Jaurlaritzak deitua, Jaurlaritza, Aldundia eta Udala ba langileekin eta lantzen eon gea, ba bueno, ea ze irtenbide bideragarri aurkitu daitekeen edo ekarri daitekeen Astilleros Balenciagaren jardueran aurrera egiteko zailtasunak daude. Egia da hor badagola diru kopuru bat, eman zitzaiona, abal bezela eta bueno bueltatu ezin izan dena. Eta hori da oztopoa, baino bueno, bai daola parte guztietatik konpromisoa lanketa horretan, ea lortzen dugun, alde batetik, lehendabizi ba proiektu aurrera eramango duen proiektu bideragarri bat lortzen eta gero abal hoiak ba bueno behintzat, ez izatea dake oztopoa proiektu hau aurrera joaten. Hortan usten dut instituzio danak, bat gatozela eta biyar dago manifestazio bat deituta, langileekin, udal bezala, talde politiko guztien oniritziarekin atxikitzen geana eta hemendikan, ba bai, Zumaiko herriari dei bat egitea biharko manifestazioan parte hartzeko, Udal osoaren izenean. Eta besterik gabe, honekin bukatzen det Ohiko Osoko Bilkura. Eskerrik asko.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak hamar gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2025eko azaroaren 22an

Idazkaria  
ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA  
[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) • e-mail: [udala@zumaia.eus](mailto:udala@zumaia.eus)



EKS | CSV: [ESKU9d64e05d-a798-4f28-bdea-ce599c43df1e](https://uxt.gipuzkoa.eus?De=08110)

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uxt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uxt.gipuzkoa.eus?De=08110>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IAKU0013-202. AKTA/ACTA 202 ()